



ANDOAINGO UDALA

# **ANDOAINGO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

VI. PLANGINTZALDIA (2018-2022)

Andoainen, 2018ko azaroan

## Aurkibidea

<b>1 SARRERA.....</b>	<b>3</b>
<b>2 OINARRIAK ETA PRINTZIPIOAK.....</b>	<b>4</b>
2.1 LEGE OINARRIA.....	4
2.2 PRINTZIPIO OROKORRAK.....	6
<b>3 ANDOINGO UDALEKO ADMINISTRAZIO-ATALEN IZAERA ETA LANPOSTUEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK.....</b>	<b>8</b>
3.1 ADMINISTRAZIO-ATALAK, IZAERA ADMINISTRATIBOA ETA HIZKUNTZAZKOA.....	8
3.2 LANPOSTUEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA DERRIGORTASUN-DATAK.....	14
<b>4 ERABILERA PLANAREN HELBURU OROKORRAK.....</b>	<b>15</b>
4.1 ZERBITZU HIZKUNTZA: HERRITARREN HIZKUNTZA HAUTUA BERMATZEA.....	15
4.2 UDALAREKIKO EUSKARAZKO HARREMANAK SUSTATZEA: EUSKARAZKO HARREMAN ZENTSUA.....	17
4.3 HERRI-ADMINISTRATIOEKIKO HARREMANAK EUSKARAZ IZAN DAITEZEN SUSTATZEA.....	18
4.4 MUSIKA ESKOLA, KIROLDEGIA, GAZTE LOKALA ETA LUDOTEKA: ERABILERA PLANA GAUZATZEA.....	19
4.5 EUSKARA OHIKO LAN HIZKUNTZA: EUSKARAZ SORTZEA.....	19
<b>5 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO NEURRIAK.....</b>	<b>20</b>
5.1 IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA.....	21
5.2 ERREGISTROA.....	22
5.3 HAUTAKETA PROBAK.....	22
5.4 LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORRA.....	23
5.5 LANGILEEN TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK.....	23
5.6 UDAL BARRUKO KOMUNIKAZIOAK: AHOZ ETA IDATZIZ.....	24
5.7 HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA.....	24
5.8 AGINTARI POLITIKOEN HIZKUNTZA-GAITASUNA.....	25
5.9 ITZULPEN, ZUZENKETA ETA INTERPRETazio ZERBITZUA.....	25
5.10 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA.....	26
<b>6 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO BITARTEKOAK: ANTOLAKETA ETA ORGANOAK.....</b>	<b>29</b>
6.1 JARRAIPEN ORGANO GORENA.....	29
6.2 EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO BATZORDEA (ENBA).....	30
6.3 BIDERATZAILEAK.....	30
6.4 LANTALDEAK.....	31
6.5 EUSKARA ZERBITZUA.....	31
<b>7 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....</b>	<b>31</b>

# 1 SARRERA

Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko VI. PLangintzaldiko lehen urtea den honetan 2018-2022 urtealdirako plana onartzea dagokio Andoaingo Udalari: Udalaren Euskararen Erabilera Plana (aurrerantzean, EEPLA). Ez da kontu berria. Dagoeneko ezagunak ditugu EAEko herri-administrazioen eragin eremuan bost urtean behin onartzen diren erabilera planak. Ez dira alferrik pasa hogeita zortzi urte 1990ean Udalaren lehen plana onartu eta lanpostu guztiei hizkuntza eskakizunak jartzeaz gain langileak euskaldundu edo alfabetatzeari ekin genionetik.

Geroztik igaro dira plangintzaldi batzuk eta aldatu ere nabarmen aldatu da Udalaren errealitate linguistikoa. Ordukoa baino askoz ere euskaldunagoa da gaurko Udala. Askoz gehiago egiten du euskaraz 2018ko Udalak, baina gehiago ere egin dezake eta egin behar du. Eredugarri eta bidegile izatea dagokio udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko ardura duen erakundeari. Ezin dugu ahaztu, gainera, Andoaingo herria bera ere garai haietan baino euskaldunagoa dela eta errealitate horri erantzun behar diola Udalak.

Horretara dator EEPLA, Udalaren eguneroko jardunean euskararen erabilera areagotzeko helburuak, neurriak eta epeak zehaztera. Eginkizun horretan, arreta berezia jarri dugu hizkuntza eskakizunak, lanpostu bakoitzaren eginkizun komunikatiboak eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak uztartzen, elementu horietako bakoitzak ez baitu zentzurik beste bienik gabe.

EEPLA diseinatu aurretik V. Plangintzaldiko planaren ebaluazioa egin du Udalak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak proposatutako bitartekoak erabiliz, eta ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuz zehaztu ditugu EEPLAko helburu nagusiak eta neurriak, neurri handi batean lan-hizkuntzari dagozkionak, VI. Plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzak proposatutako irizpide orokorrei jarraiki.

Sarrerako azken hitz hauek baliatuko ditugu adierazteko EEPLAK arrakastarik izan dezan ezinbestekoa dela Udala goitik behera eta alderik alde bustiko duen plana izatea. Alegia, erabateko zehar-lerro izaera duela EEPLAK. Udalaren plana da, ez sail batena, eta Udala osatzen dugun ordezkari politiko nahiz langile guztiona da EEPLAko helburuak lortzeko, hondar-alea baino gehiago, ilusioa eta jokabide arduratsua jartzeko erantzukizuna

## 2 OINARRIAK ETA PRINTZIPIOAK

### 2.1 LEGE OINARRIA

Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planek legea dute oinarri, lege ezarritako betebeharrei erantzuten diete eta, neurri horretan, legea dute babes. Legeak osatzen duen marko hori, beraz, funtsezkoa da herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesu honetan guztian.

Hona hemen VI. Plangintzaldiko Udalaren EEPLAren lege-markoa, **hurrenkera kronologikoan emana**:

- Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Horixe da Euskal Herriko Autonomia Estatutuak bere 6. artikuluan egindako aldarria.
- Estatutuan aldarrikatutako ofizialtasuna arautzera etorri zen azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea, Euskararen erabilera arauzkotzekoa (*aurrerantzean, Euskararen Legea*): 5. eta 6. artikuluen arabera, herritar ororen eskubidea da erakunde publikoekiko harremanetan, idatziz nahiz ahoz, herritarrak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean, euskaraz edo gaztelaniaz, artatua izatea; eta erakunde publikoen obligazioa da eskubide hori egiazki errespetatzeko beharrezko diren neurriak hartzea, eskubide hori eraginkorra eta benetakoa izan dadin.
- 1/88 Udala Ordenantza, Andoaingo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituena (*aurrerantzean, 1/88 Udala Ordenantza*): goian aipatutako xedapen orokorrak Udalaren jarduera-eremuan aplikatu eta betearazteko xedez onartutakoa.
- Uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa (*aurrerantzean, Funtzio Publikoaren Legea*), izan zen herri-administrazioen lanpostu-zerrendetan nahitaez jaso beharrekoen artean lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizuna eta, dagokionean, derrigortasun-data, sartu behar direla ezarri zuena. Hala abiatu zen 1990ean administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko I. Plangintzaldia (1990-1995), euskararen erabilera normalizatzeko aurrelanean zentratu zena batik bat,

esan nahi baita lanpostuei hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak asignatzea eta langileak euskalduntzea nahiz alfabetatzea izan zela plangintzaldiko eginkizun nagusia.

- Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, izan zen hurrengo lege-mugarri nagusia (aurrerantzean, 86/1997 Dekretua). Bost urtean behin euskal administrazio bakoitzak bere jardun-eremuan euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zuen Dekretuak, eta indarrak erabilera sustatzeko neurrietan jarri, aurreko plangintzaldian nagusitutako gaikuntzatik haratago. Esan liteke II. Plangintzaldia (1997-2002) izan zela EAEko herri-administrazioetan hizkuntza plangintzaren barruan erabileraren normalizaziorako aroa abiarazi zuena. Harrezkero, derrigortasun-indizea, indizeari lotutako gutxienezko helburu mailakatuak, zerbitzu- nahiz harreman-hizkuntzari lotutako neurriak, euskarazko atalak eta atal elebidunak eta Dekretuak jasotako beste hainbat kontzeptu elementu zentral bihurtu dira herri-administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plangintzetan.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Karta, Europako Kontseiluak 1992an onartua eta 1998an indarrean jarria, eta Espainiako Estatuak 2001ean berretsi eta indarrean jarria. Bere 10. artikuluan administrazioari dagozkion konpromisoak zehazten ditu eta, 7.2 artikuluan adierazten denez, euskara erabiltzen dutenen eta gainerako herritarren arteko berdintasuna bultzatzea da euskararen aldeko neurri bereziak hartzearen helburua eta justifikazioa, eta horretxegatik ezin dira hartu hizkuntza nagusietako hiztunen aurkako diskriminaziotzat.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (*aurrerantzean, ETEL*). Lege honek bere aplikazio eremurako garatzen eta zehazten ditu Euskararen Legeak herritarrei erakunde publikoekiko harremanetan aitortutako hizkuntza eskubideak.
  - 6. artikulua arautu eta legez babesten du hala nahi duten toki erakundeek euskara lan-hizkuntza gisa erabiltzeko aukera, euskarazko jardunari legezko balio osoa aitortuz, betiere beste ezeren gainetik herritarraren hizkuntza hautua herritarrarentzako deserosotasunik gabe errespetatuz.

- Euskararen erabilerari dagokionez udalek dituzten eskumenak jasotzen dira 7. artikuluan, eta bidea irekitzen du udal barnean nahiz handik kanporako harremanetan euskararen erabilera sustatzeko jarduna areagotzeko.
  - Euskararen sustapena udalen eskumen propioen artean jasotzen du Legeak, bere 17. artikuluan 26. puntuan, eta udalerriei aitortzen die, besteak beste, udal erabilera planak idatzi, onartu eta garatzeko eskumena.
  - 25.9 artikulua udalerraren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko kapituluko printzipio orokorren artean jaso du hautetsien hizkuntza-gaitasuna (ulermena) sustatuko dutela udalek, euren euskarazko jarduna ahalbidetzeko neurri gisa.
- Azkenik, eta arau izaerarik ez duten arren, EEPLA diseinatzeko garaian oso kontuan hartu dira EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintzaldiaren ebaluazio emaitzak eta Eusko Jaurlaritzak VI. Plangintzaldirako proposatutako gida-lerroak.

## **2.2 PRINTZIPIO OROKORRAK**

Andoaingo Udalaren EEPLAk Udalaren jardunean euskararen erabilera normalizatzeko helburuak, neurriak, baliabideak eta epeak zehazten ditu 2018-2022 aldirako, eta 86/1997 Dekretuak 19. artikuluan euskal administrazioei ezartzen dien betebeharra asetzerara dator. Planaren helburu, neurri eta gainerako xehetasunak xehetasun, oinarrian dituen printzipioak dira planaren ezaugarri nagusiak definitzen dituztenak.

Hona, printzipio horiek:

- a) Euskararen ofizialtasunak herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea du helburu eta Andoaingo Udalak bere jardueraren oinarri-oinarrian printzipio hori izango du, eta errespetatu egingo du herritarrek Udalarekiko harremanetan hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea. Beti eta ororen gainetik errespetatuko du Udalak herritarren hizkuntza aukera, herritarrei ezerosotasunik eragin gabe errespetatu ere. Izan ere, herritarrek duten hizkuntza aukeratzeko eskubidea efektiboki bermatzeko legezko obligazioa baitu Udalak.
- b) Euskara ere, zerbitzu-hizkuntza ez ezik, ohiko lan hizkuntza normala izango da Andoaingo Udalean, horixe baita herritarrek Udalarekiko harremanetan hizkuntza

aukeratzeko duten eskubidea benetan bermatzeko erarik eraginkorrena eta efizienteena. Euskarari eta gaztelaniari aitortzen zaien berdintasunezko lege-estatusetik haratago, Udalaren eguneroko funtzionamenduan ere berdintasun gero eta handiagoa izatea da Andoaingo Udalaren nahia. Horretara dator EEPLA, helburuak, neurriak, epeak, bitartekoak eta ebaluazio bideak finkatzera, hain zuzen ere Udalaren ohiko jardunean bi hizkuntzen erabileran berdintasun gero eta handiagoa lortzeko.

- c) Euskara biziagoa eta eguneroko jardunean normaltasunez erabiltzen den hizkuntza izatea. Udalak ahalegin berezia egingo du bere eguneroko jardunean erabiltzen duen euskara gaztelaniaren egitura eta esamoldeekiko morrontzatik ateratzeko nahiz herritarrentzat hurbilagokoa den hizkera erabili eta komunikagarritasuna bermatzeko.
- d) Euskara biziagoa erabiltzeko, herritarrengandik gertuago dagoena, lagungarri izango da zerbitzu-hizkuntza gisa ez ezik Udalaren barne-bizitzan, bereziki ahozko lan-harremanetan, euskara gehiago erabiltzea. Inolako zalantzarik gabe, palanka garrantzitsua izango da idatzizkoan ere euskaraz gehiago sortzeko eta, azken finean, euskara gero eta biziagoa erabiltzeko.
- e) EEPLAk edo, bestela esanda, euskararen erabilerari buruzko udal politikak ezinbestez erabateko zehar-lerro izaera izan behar du Udalaren jardunean eta egituretan; hots, udal agintariek eta udal langileek bere egin eta partekatzen duten hizkuntza politika, eta Udaleko lansailen funtzionamenduan zehar-lerro gisa txertatuko dena, ez kanpotik norbaitek txertatzen duelako baizik eta lansail bakoitzeko ordezkariak eta langileek bere egiten dutelako.

### **3 ANDOINGO UDALEKO ADMINISTRAZIO-ATALEN IZAERA ETA LANPOSTUEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK**

#### **3.1 ADMINISTRAZIO-ATALAK, IZAERA ADMINISTRATIBOA ETA HIZKUNTZAZKOA**

86/1997 Dekretuak 17. artikuluan herri-administrazio bakoitzarentzat ezartzen dituen gutxienerako helburu mailakatuak agintzen dutena betetzea xede, Andoingo Udaleko administrazio-atalen izaera administratiboa eta hizkuntzazkoa zehazten dira EEPLAren atal honetan.

Jakina denez, plangintzaldiko derrigortasun-indizearen arabekoak dira Dekretuaren aginduz herri-administrazio bakoitzak bete beharrekoak diren gutxienerako helburuak. Zenbat eta handiagoa indizea, orduan eta helburu jasoagoak bete beharko ditu, nahitaez eta gutxienerako izaeraz, administrazioak.

2018-2022 urtealdiari dagokion VI. Plangintzaldian herri-administrazio bakoitzari dagokion derrigortasun-indizea 2016ko Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan euskararen ezagutzamailari buruz EUSTATEk jasotako datuetatik ateratakoa da eta %65,16koa da Andoingo Udalaren kasuan. Hori aintzat hartuz gero, 86/1997 Dekretuaren 17. artikuluko helburu mailakatuetan hirugarrena (% 45etik % 70era bitarteko indizea duten erakundeei dagokiena) betetzea legokioke Andoingo Udalari eta, Dekretuak dioen bezala, herri-administrazio bakoitzak lortu egin beharko ditu gutxienerako helburu horiek, eta lortu ere bere indizeak ahalbidetzen duen neurrian.

Aurreratu dugun moduan baina, gutxienerako izaera du indizeak eta, aurreko plangintzaldietako mailari eutsiz, gutxienerako indize horretatik gora dabil Andoingo Udalaren indize erreala VI. Plangintzaldiko lehen urtea den honetan ere, % 77,18koa baita gaur-gaurkoz indize erreal hori Udalari dagokionez. Horrez gain, kontuan hartu beharrekoa da plan hau onartzeko garaian hizkuntza eskakizunen betetze maila bera ere oso altua dela Andoingo Udalean, hain zuzen ere % 97koa. Horrenbestez, indize errealak eta hizkuntza eskakizunen betetze mailak euskararen erabileraren normalizazioan norainoko bidea egitea ahalbidetzen dioten kontuan harturik, Andoingo Udalak, VI. Plangintzaldirako bere egiten du 86/1997 Dekretuak finkatzen dituen gutxienerako helburuetan hirugarrena ez, baizik eta laugarrena (% 70etik % 100era bitarteko indizea duten erakundeei dagokiena) betetzeko nahia eta erabakia. Beraz, helburu horri dagozkionak betetzeko Udalaren egitekoa da, gutxienez honakoa:



- Administrazio-atal elebidunak jartzea jendaurreko ataletan, gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan, gizarte izaerako ataletan eta izaera orokorrekoetan.
- Euskarazko administrazio-atalak jartzea progresiboki, EEPLAN ezarritakoaren arabera.

Dekretuak ez du gutxienerako helbururik ezartzen bere 16. artikulua Dekretuaren ondorioetarako izaera bereziko atal gisa definitzen dituen haientzat (*gehienetan eskuz egindako lanak burutzen dituzten obra, mantentze, garbiketa eta gisako zerbitzuak ematen dituztenak*).

86/1997 Dekretuko 17. artikuluko laugarren helburu mailakatuari begira, honako bi baldintzak betetzen dituzten lantsailak eta atalak izendatu ditugu **EUSKARAZKO ATAL**:

- a) Lantsaileko nahiz ataleko lanpostuetan hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila gutxienez % 80koa izatea.
- b) Lantsaileko nahiz ataleko arduradunak bere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea edo plangintzaldiaren barruan egiaztatuko duela aurreikusita egotea, derrigortasun-data jarrita daukanez plangintzaldiaren barruan. Nolanahi ere, baldintza hau betetzat emango da lanpostuari 4.HE badagokio eta arduradunak bat beheragokoa (3.HE) egiaztatua baldin badauka; ez ordea, lanpostuak 3.HE edo beheragokoa duenean.

Euskarazko atalari **bere lana nagusiki euskaraz egitea dagokio** eta, ondorioz, **euskara izango du lan-hizkuntza ohikoa eta normala**. Hori baina, ez da Udalak hartutako erabaki baten ondorioz egun batetik bestera lor litekeen helburua, baizik eta urte luzetako dinamika eta lan-ohiturak aldatzeko prozesu baten barruan progresiboki lortu beharrekoa, betiere Plangintzaldia amaitu aurretik.

Euskarazko lantsail eta atalen artean izango da, eta dagoeneko bada, euskara lan-hizkuntza ohikoa eta normala duenik, baina era berean bada helburu horretara iristeko Plangintzaldiaren barruan ibilbide bat, luzeagoa edo laburragoa baina ekinez egin beharreko ibilbide bat, egin beharrean izango denik ere. Prozesu hori arrakastatsua izan dadin behar besteko baliabideak eta laguntza eskainiko dizkie Udalak bertako langileei eta udal ordezkariari (prestakuntza orokorra euskaraz, berariazko hizkuntza-prestakuntza, trebakuntza, zuzenketa eta kontsulta zerbitzua, dokumentu estandarizatuak, hiztegiak, zerrenda terminologikoak, itzulpen memoria eguneratuak, zuzentzaile automatikoa...).

Euskarazko atal edo lansail izendatzeak, beraz, ohiko lan-hizkuntza euskara izatea dakarkio atal edo lansailari. Praktikan hori zer den, 1/88 Udal Ordenantzaren 18. eta 19. artikuluetan marraztutakoaren ildo beretik, ETELeke 6.2 artikulua zehazten du gaur egun: atal edo lansail horiei dagozkien organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, erabakiak eta aktak euskaraz idatziko dira. Udal Ordenantzaren eta ETELen artikulua aipatu berriek idatzizkoan jartzen dute fokua lan-hizkuntza izateak zein dokumentu euskaraz egitea dakarren espresuki adieraztearekin, baina esan beharrik ez dago laneko harremanetan egiten den ahozko erabilera ere lan-hizkuntza dela, eta inolaz ere ez idatzizkoak baino garrantzi gutxiagokoa.

Nolanahi ere, Udalak beti bermatuko du herritarrekin dituen harremanetan herritarrak hautatutako hizkuntza ofizialaren erabilera, herritarrari zama edo ezerosotasunik eragin gabe. Herritarraren hizkuntza-hautua errespetatzea, dela euskara dela gaztelania hautatutako hizkuntza, uneoro eta beste ezeren aurretik bete behar da eta beteko da. Halaber, ETELen 6.2 artikuluan xedatuari jarraiki, "euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein udalkideren eskubideak urratu gabe" jardungo da.

Euskarazko atal izendatzeko baldintzak betetzen ez dituzten administrazio-atalak **ATAL ELEBIDUN** izango dira EEPLAren ondorioetarako. Esan nahi baita, **beren eginkizunak, idatzizkoak nahiz ahozkoak, hizkuntza ofizial batean zein bestean egin ahal izango dituztela.** Alegia, **eginkizun batzuetarako euskara izango dutela lan-hizkuntza eta beste batzuetarako gaztelania.**

Atal horietan, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileekin adostuko dira lan-hizkuntza gisa euskara erabiltzeko konpromiso zehatzak, EEPLAn jasotako helburuen arabekoak, eta adostu egingo da nork, noizko eta zer egingo duen euskaraz, aurrez aipatutako baliabideen laguntzarekin. Norabide horren oinarria aspalditxo jarri zuen 1/88 Udal Ordenantzaren 10. artikulua, honakoa xedatuz "*dagokien hizkuntza eskakizuna jadanik betetzen duten enplegatuek euskaraz burutuko dute beren lana*".

Honakoa da sailletako argazkia:

LANSAILA	ATALA	EGOERA		IZAERA ADMINISTRATIBOA ETA HIZKUNTZAZKOA	
		HE Egiaztatze-maila %80tik gorakoa	Arduradunak HE egiaztatuta	Izaera administratiboa	Hizkuntzazko izaera
<b>Alkatetza</b>		BAI	BAI	Gizarte izaerakoa	Euskarazko atala
<b>Idazkaritza</b>	Ataria	BAI	BAI	Jendurrekoa	Euskarazko atala
	KIUB	BAI	BAI	Jendurrekoa	Euskarazko atala
	Artxiboa	BAI	BAI	Gizarte izaerakoa	Euskarazko atala
	Administrazioa	BAI	BAI (*)	Orokorra	Euskarazko atala
<b>Ekonomia eta Ogasuna</b>	Errenta	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
	Diruzaintza/Zerga-bilketa	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
	Administrazioa	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
<b>Langileria</b>	Informatika	BAI	EZ (**)	Orokorra	Atal elebiduna
	Laneko arriskuen prebentzioa	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
	Administrazioa	BAI	EZ	Orokorra	Atal elebiduna

LANSAILA	ATALA	EGOERA		IZAERA ADMINISTRATIBOA ETA HIZKUNTZAZKOA	
		HE Egiaztatze-maila %80tik gorakoa	Arduradunak HE egiaztatuta	Izaera administratiboa	Hizkuntzazko izaera
<b>Gizarte Zerbitzuak</b>	Gizarte langileak	BAI	BAI	Gizarte izaerakoa	Euskarazko atala
	Administrazioa	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
<b>Hirigintza Zerbitzuak</b>	Administrazioa	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
	Eskolazaina	BAI	BAI	Gizarte izaerakoa	Euskarazko atala
	Eskulangileak	EZ	BAI	Izaera berezikoa	Atal elebiduna
<b>Hezkuntza eta Kultura</b>	Musika Eskola	BAI	BAI	Jendurrekoa	Euskarazko atala
	Haurreskola	BAI	BAI	Jendurrekoa	Euskarazko atala
	Liburutegia	BAI	BAI	Jendurrekoa	Euskarazko atala
	Administrazioa	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
<b>Sustapen</b>	Arloetako teknikariak	EZ	BAI	Gizarte izaerakoa	Atal elebiduna

LANSAILA	ATALA	EGOERA		IZAERA ADMINISTRATIBOA ETA HIZKUNTZAZKOA	
		HE Egiaztatze-maila %80tik gorakoa	Arduradunak HE egiaztatuta	Izaera administratiboa	Hizkuntzazko izaera
ekonomikoa, enplegua eta gazteria	Irakasleak	EZ	BAI	Gizarte izaerakoa	Atal elebiduna
	Administrazioa	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
Udaltzaingoa	Administrazioa	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
	Udaltzainak	BAI	BAI	Gizarte izaerakoa	Euskarazko atala
Jarduera fisikoa eta kirola	Administrazioa	BAI	BAI	Gizarte izaerakoa	Euskarazko atala
	Mantentze-lanak	BAI	BAI	Orokorra	Euskarazko atala
Berdintasuna	-	BAI	BAI	Gizarte izaerakoa	Euskarazko atala

(\*) Lanpostuari 4.HE dagokio eta arduradunak 3.HE egiaztatuta dauka.

(\*\*) Plangintzaldia amaitzerako arduradunak HE egiaztatzea aurreikusi da.

**EUSKARAZKO ATALA:** euskara lan-hizkuntza gisa erabiliko duen atala, prozesu gisa ulertu behar da. Gutxienez % 65ean plangintzaldiaren amaierarako.

Planear euskarazko atal edo lansail izendatutako horiek berretsi egin beharko dute izendapenari dagokion erabakia bi hilabeteko epean, Udalbatzak EEPLA onartzen duen egunetik aurrera, hain zuzen ere euskarazko atal edo lansail izendapena indarrean jar dadin.

### **3.2 LANPOSTUEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA DERRIGORTASUN-DATAK**

EEPLA diseinatu eta onartzeko prozesuaren barruan, Udalaren lanpostuen zerrendako hizkuntza eskakizunak oro eta derrigortasun-datak berrikusi eta planaren helburuetarako egoki irizitako aldaketak egin ditu Andoaingo Udalak. Hori guztia, baliatuz hala hainbat lanpostu berriri nola funtzioetan edota sailkapen-taldean aldaketak izan dituen beste hainbati hizkuntza eskakizunak eta zenbaitetan derrigortasun-datak ere esleitu beharrean zela, Funtzio Publikoaren Legearen 97.2 artikulua xedatutakoaren arauz.

86/1997 Dekretuaren 19.1 artikuluan jasota dagoenez, *“Euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzarako planak onartuko dituzte plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, eta horrelakorik onartuta duten kasuetan, hauei egin beharreko egokitzapenak, planaren inplementaziorako egoki derizkioten aldaketak lanpostu-zerrendan jasoko direlarik”*. Horixe erantzuten dio Udalaren lanpostuen zerrendako hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak bere osotasunean berrikusi eta egok irizitako aldaketak onartzeko erabakiak.

Aurreratu dugun moduan, Udalak dagoeneko egin du osoko berrikuspen hori, eta zehaztu ditu lanpostuen zerrenda berritu osoari dagozkion hizkuntza eskakizunak eta, hala dagokionean, baita derrigortasun-datak ere. Udalbatzak 2018.10.25ean egindako batzaraldi plenarioan hartu zuen erabakia, aho batez hartu ere, alde aurretik jaso ondoren Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren aginduzko txostena, aldekoa izan zena bere osotasunean.

Hizkuntza-eskakizunak asignatu eta derrigortasun-datak finkatzerakoan kontuan hartu dira lanpostu bakoitzaren funtzioak, lanpostuak organigraman duen kokalekua nahiz lanpostua kokatzen den atal administratiboaren izaera, Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planaren helburuak eta eginkizun honetan kontuan hartu behar diren legezko arauak, besteak beste, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua eta ondorengo lege-arau eta irizpideok: Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako

Europako Erreferentzia Markoa; 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena; Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculuma (HEOC), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak 2015eko uztailaren 22an emandako Aginduz onartutakoa; hizkuntza eskakizunak esleitzeko proposamena, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin eta HAKOBak 2017ko abenduan onetsitakoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa dena.

Derrigortasun-datei dagokienez, EUSTATEk berriki emandako datuen arabera, EAeko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaldirako (2018-2022) Andoaingo Udalarari dagokion derrigortasun-indize gutxienekoa % 65,16koa da, eta bete egingo da plangintzaldi honetan ere, Planaren 3.1 atalean dagoeneko adierazita geratu den bezala.

Dokumentu honen I. eranskinean dator Andoaingo Udalaren lanpostuen zerrenda berrituko hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak jasotzen dituen agiria, beharrezko azalpen guztiekin.

## **4 ERABILERA PLANAREN HELBURU OROKORRAK**

Andoaingo Udalak VI. Plangintzaldian, azkenekoetan bezala, erabilera izango du erronka nagusia baina urrats bat aurrerago egin nahi da. Labur, honela formulatu dugu 2018-2022 aldirako erronka estrategikoa: euskara ere zerbitzu-hizkuntza gisa bermatuko da % 100ean eta laneko ohiko hizkuntza izatea ere bultzatuko da. Helburua da euskara lan-hizkuntza izango duten lansailek, atalek, organoek nahiz langileek plangintzaldiaren amaierarako lan-hizkuntza euskara izatea gutxienez % 65ean, horixe baita Andoaingo Udalarari betetzea dagokion gutxieneko derrigortasun-indizea; eta dagoeneko hori betetzen dutenek 10 puntuko igoera lortzea.

### **4.1 ZERBITZU HIZKUNTZA: HERRITARREN HIZKUNTZA HAUTUA BERMATZEA**

Autonomia Estatutuak eta Euskararen Legeak ezarritako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren printzipioaren ondorio da administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan herritarren hizkuntza hautua egiazki errespetatzeko administrazioak duen obligazioa.

Euskara ere, gaztelania bezalaxe, Andoaingo Udalaren zerbitzu-hizkuntza izango da Udalak antolatutako ekimen eta jarduera guztietan, aurrez aurreko harremanetan, telefono

bidezkoetan, komunikazio digitaletan nahiz bulego birtualen bidez gauzatzen direnetan. Alegia, Udalak herritarrekin dituen harreman mota guztietan bermatuko du bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko herritarrek duten eskubidea, beti eta ororen gainetik errespetatuz herritarraren hizkuntza hautua, herritarrarentzako ezerosotasunik eragin gabe bermatu ere. Ondorioz, plangintzaldi amaieran %100ean bermatuko da Udalaren eta herritarren arteko harremana herritarrak aukeratutako hizkuntzan izango dela, eta neurriak hartu eta baliabideak jarriko dira helburu hori Udalaren zerbitzu bakoitzean bete dadin zuzenean emandako zerbitzuan. Hirugarrenen bidez eskaintzen diren zerbitzuen kasuan ere ahalegina egingo da betetze maila helburu horretara hurbiltzeko.

Ahozko harremanetan, honela jokatu da:

- Andoaingo Udaleko langileek lehen hitza euskaraz egingo diete herritarrei eta ondoren, herritarrek aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute.
- Hartzaile jakin edo zehatzik ez duten ahozko mezuak (gailu automatikoz, telefonoz, bozgorailuz eta antzeko bideak erabiliz zabaldukoak) lehenik euskaraz emango dira, eta ondoren gaztelaniaz.
- Udalak antolatzen dituen ikastaroetan eta jendaurreko ekitaldietan bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea bermatuko da. Nolanahi ere, Andoaingo gizarte- bizitza euskalduntzeko eta euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal izan daitezen, ekimenaren izaerak edota hartzaileen hizkuntza ezaugarriek hala eskatzen dutenean euskara erabiliko da, gazteei zuzendutakoetan, adibidez.

Idatzizko harremanetan, honela jokatu da:

- Herritarrak edo bestelako erakundeak (interesatuak) Udalarekin euskaraz aritzea aukeratu duenean, edota haiek euskaraz egindako eskaerei erantzuna ematerakoan, euskaraz egingo du Andoaingo Udalak. Gaztelaniaz edo bi hizkuntza ofizialetan jasotako eskaerei ele bietan erantzungo die Udalak.
- Pertsona fisiko eta juridikoen datuak jasotzeko Udalak dituen datu-base eta erregistro guztietan eremu bat jarri beharko da pertsona horiek Udalarekiko harremanetarako zein hizkuntza hautatu duten jasotzeko. Gauza bera egingo da Udalak herritarren eskura jartzen dituen inprimakietan eta harreman telematikoetako formularioetan.



- Udalak bere zerbitzua emateko erabiltzen dituen inprimaki guztiek eta herritarrei zuzendutako dokumentazio estandarizatu orokorrak bi bertsio izango dituzte, bata euskarazkoa eta bestea bi hizkuntza ofizialetan dagoena.
- Hartzaile jakin eta zehatzik ez duten idatziak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita emango dira ezagutzera, euskarazkoa nabarmenduz.
- Udalaren lansail bakoitzak bere zerbitzuak euskaraz erabiltzeko aukera dutela nabarmenduko die herritarrei eta interesatuei oro har, zerbitzu bakoitzaren ezaugarrien arabera.
- Tramitazio telematikoaren kasuan, herritarrak hizkuntza aukeratuko du, gaztelania edo euskara, eta sistemak ematen dizkion jakinarazpenak edo ziurtagiriak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko aukera bermatuko zaio, herritarrak egin duen hizkuntza hautuaren arabera.

## **4.2 UDALAREKIKO EUSKARAZKO HARREMANAK SUSTATZEA: EUSKARAZKO HARREMAN ZENTSUA**

Andoaingo Udalak sustapen lana egingo du euskal hiztun diren herritarrek Udalarekin dituzten harremanetarako zerbitzu-hizkuntza gisa euskara hauta dezaten. Hori horrela gerta dadin, zerbitzua ematerakoan langileek euskararen aldeko jarrera proaktiboz jokatuko dute.

Udalak herritarren hizkuntza hautua efektiboki bermatzeko akuilu gisa sortutako tresna da Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarren zentsua (aurrerantzean, Euskarazko Harreman Zentsua). 1/88 Udal Ordenantzaren 5. artikulua dioen bezala, bertan izena emandako herritarrei euskaraz zuzenduko zaie Udala. Planaren habe nagusietakoa da eta neurriak hartuko dira bertan izena emandako herritarrekin hartutako konpromisoa sistematikoki eta hutsik egin gabe betetzeko.

Balio handiko tresna da euskara zerbitzu-hizkuntza gisa sustatzeko ez ezik lan-hizkuntza gisa progresiboki indartzeko ere. Honela jokatuko da Euskarazko Harreman Zentsuaren ezagutza eta erabilera sustatzeko:

- Erroldatzera datozen herritarrei sistematikoki emango zaie Harreman Zentsuaren berri, behar bezala azalduz zertarako den. Adieraziko zaie Harreman Zentsuan izena emanda

egotea ez dela oztopo, ez dokumentu jakin baten gaztelaniazko itzulpena eskatzeko, ez euren aldetik tramiteren bat gaztelaniaz egiteko.

- Udalak neurriak hartuko ditu Harreman Zentsuaren erabilera ahalik eta errazena eta erosoena izan dadin. Lansailtako langileek eta zinegotziek berariaz zainduko dute herritarrak egindako hautua errespetatzea.

Harreman Zentsuan izena emanda egotea ez denez ezinbesteko Udalarekiko harremanetan euskara erabiltzeko, lansail bakoitzak euren zerbitzuak euskaraz erabiltzeko aukera dagoela jakinaraziko die herritarrei eta erakundeei.

### **4.3 HERRI-ADMINISTRATIOEKIKO HARREMANAK EUSKARAZ IZAN DAITEZEN SUSTATZEA**

Beste herri-administratioekiko harreman-hizkuntza, ahoz eta idatziz, euskara izango da bideragarria den guztietan. Andoaingo Udalak, ETELen 7.6 artikuluan xedatutakoa jarraituz, hitzarmen edo akordio bidezko sustapen lana egingo du bere euskarazko lansail edo atalek EAEko beste herri-administratio bateko atalekin ahoz eta idatziz dituzten harremanak gero eta gehiago izan daitezen euskaraz. Progresiboki *administratio arteko arnaguneak* eratuko dira akordio hauen bitartez. Lansailtako mikroplanetan jasoko dira akordioak. Honako irizpideak jarraituko dira:

- Andoaingo Udalarekin harremana euskaraz nahi dutela berariaz adierazten duten herri-administratioei bidali beharreko idatziak euskaraz sortuko dira eta erantzungo zaie.
- Beste herri-administratioetatik jasotako idatziei dagokienez, euskaraz idatzitakoari euskaraz erantzungo zaio. Eta ele bietan nahiz gaztelaniaz jasotako idatziak badira, euskaraz erantzun ahal izango diete lan-hizkuntza euskara duten Udaleko lansailak.
- Andoaingo Udaleko euskarazko atalek Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administratioekiko harremanak euskaraz izango dituzte, idatziz eta ahoz.
- Beste herri-administratioekin egiten diren lan-bileretan aldeztatik erabakiko da hizkuntzaren erabilera nola kudeatuko den, betiere euskararen erabilera bermatuz.
- Beste herri-administratio batetik jasoz gero Udalarekiko harremanetan euskara erabiltzeko akordio-proposamena, Udalak baieztatu erantzuna emango dio inola ahal bada. Momentuz ezinezkoa izatekotan, Udalak eskura dauzkan bitartekoak jarriko ditu

ahalik eta denbora tarterik motzenez akordio-proposamena onartzeko, eskatzailearekin adostuz.

- Udalaren ebazpenak, aktak eta erabakiak euskaraz idatzitakoak direnean, euskaraz bidaliko zaizkie kopiak edo laburpenak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari eta Estatukoari, toki-araubideari buruzko oinarrizko legeriari jarraituz.

#### **4.4 MUSIKA ESKOLA, KIROLDEGIA, GAZTE LOKALA ETA LUDOTEKA: ERABILERA PLANA GAUZATZEA**

Musika Eskola, Allurralde Kiroldgia, Gazte Lokala eta Ludoteka Udalaren menpeko erakundeak izanik eta kontuan harturik zenbaterainoko eragina duten Andoaingo gizarte-bizitzan euskararen erabilera sustatzeko udal politikan, bereziki haur eta gazteen aisialdian duten eraginagatik, laurak dira VI. Plangintzaldian lehentasunezko arloak.

Plan hau onartu eta hiru hilabeteko epean lau erakundeen argazki linguistikoa egin eta bakoitzaren plan propioa onartuko da. Planean garrantzi berezia izango du lankideen artean euskarazko lan-harremanak sustatzeko atalak.

- Nolanahi ere, Musika Eskolako erabiltzaileen euskararen ezagutza maila zenbaterainokoa den kontuan harturik, euskara izango da zerbitzu-hizkuntza, eta inolaz ere ezin denean, salbuespen kasuak erregistratu egingo dira, ahalik eta eperik laburrenean konponbidean jartzeko neurriak eta epeak zehaztuz.
- Kiroldgiaren kasuan lanketa berezia egingo da kiroleko nahiz harrerako zerbitzuak eskaintzen dituen enpresako arduradunarekin eta jarraipena egingo zaio kontratuaren exekuzioko hizkuntza-baldintzen betetze mailari. Bestalde, Kiroldgiko zerbitzuaren kalitatearen adierazleen artean txertatuko da euskararen erabilera.

#### **4.5 EUSKARA OHIKO LAN HIZKUNTZA: EUSKARAZ SORTZEA**

VI. Plangintzaldiko helburuen artean Andoaingo Udalean euskara ere lan-hizkuntza ohikoa eta normala izatea da helburu nagusia. Horrek esan nahi du euskarazko atalek eta hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten atal elebidunetako langileek lanerako erabilitako hizkuntza lehentasunez euskara izango dela eta, ondorioz, nagusiki euskaraz sortuko dutela. Hori da EEPLaren bidez sustatuko dena.

- Andoaingo Udalean euskarazko atal diren lansailek beren batzorde irizpenemaileen bidez eta bi hilabeteko epean berretsiko dute lansaileko lan-hizkuntza euskara izango den.
- Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten atal elebidunetako langileekin adostu egingo da, euren idatzizko lanetan noizko eta zer egingo duten euskaraz, alegia, zer sortuko duten euskaraz. Lansailen mikroplanetan jasoko dira helburu horiek.
- Ahozko ohiko hizkuntza euskara izatea bultzatuko da. Euskararen erabilera normalizatuko bada funtsezkoa da ahozko lan-harremanetan euskara erabiltzea saileko langileen artean, sailen artean, ordezkari politikoeekin eta haien artean. Idatzizko erabilera aktibatuko duen palanka da. Besteak beste, bilerak euskaraz egingo dira partaide guztiak euskaldunak direnean, eta laneko ohiko ahozko harremanak, oro har, euskaraz izateko konpromisoak hartuko dituzte langileek beraien artean, lantsail barruan eta sailen artean. EUSLE metodoa erabiliko da horretarako, aurreko plangintzaldian hainbat sailetan egindako proba pilotuei jarraipena emanez.
- Euskara lan-hizkuntza izateko beharrezko baliabideak eta prestakuntza aukerak jarriko dira Andoaingo Udaleko langileen eskura. Interpretazio eta itzulpen-zuzenketa zerbitzua alde batetik, lanpostuko eginkizunen neurria egokitutako langiroko prestakuntza eta lanerako tresna egokiak bestetik.

## **5 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO NEURRIAK**

Planaren aurreko atalean aletutako bost helburu orokorretako bakoitza lortzeko neurriak dira EEPLAren atal honetan jaso direnak. Bide batez esanda, *Andoaingo Udalean Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI)* izenburupean Udalak 2013ko otsailean onartu eta plan honen II. eranskin gisa jasota dauden irizpideak osatu eta eguneratzeko asmoz hartutako arloz arloko neurriak dira jarraian ezagutzera ematen direnak. Udalean Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak berretsi egiten dira ondoren datozen neurriekin kontrajarrita ez dauden guztian.

## 5.1 IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA

-Ikus-entzunezkoen kasuan, azpitoluekin jokatu da. Audioa euskarazkoa denean gaztelaniaz jarriko dira azpitoluak eta, alderantziz, audioa gaztelaniazkoa denean euskarazko azpitoluak jarriko dira.

-Ingurune digitalean, sare sozialei dagokienez kanal bakarraren alde egingo du Andoaingo Udalak, eta bere eskumenekoak diren webgune eta sare sozialetan (facebook eta twitter gaur-gaurkoz) irizpide hauek jarraituko ditu. Oro har, aurrez aurreko harremanetan den bezala, euskararen aldeko jokabide positiboko neurri sustatzaileak hartuko ditu Udalak. Hona irizpide orokorrak:

1. Ekimenaren izaerak edota hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek hala eskatzen dutenean euskara erabiliko da.
2. BLOa edo kanalari buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, euskarazkoa nabarmenduta edo letra lodiz.
3. Twitterren kasuan euskara eta gaztelania kanal berean joango dira eta, hurrenkerari dagokionez, gaztelaniazkoa publikatuko da aurrena eta euskarazkoa ondoren, modu horretara euskarazkoa lehen postuan agertuko delarik behin bertsio biak argitara eman ondoren.
4. Euskal hiztuna den herritarrari eta euskarazko ulermen maila nahikoa duen orori euskarazko bertsiora sartzeko aukerak errazteko, neurri sustatzaile gisa, euskarazko bertsiora sarrera egiteko esteka txertatuko da gaztelaniazko bertsioan.
5. Bertxiotzeak eta elkarrizketak jatorrizko hizkuntzan egingo dira, jatorrizko parte-hartzaileak erabilitako hizkuntzan.
6. Udalak sortu behar dituen argazki izenak, hashtagak edo nomenklaturak euskarazkoak aukeratuko ditu hartzailearen hizkuntza-ezaugarriek horretarako aukera ematen duten neurrian.

- Argitalpenak eta egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berriak oro har euskaraz hartzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei, eta eskubide hori bermatzeko bere esku dauden neurriak hartuko ditu Udalak kasu bakoitzean. Euskaraz argitaratuko dira ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek hala eskatzen dutenean (bereziki hainbat sektore euskalduntzeko prozesuak bultzatzeko egitasmoetan eta haur, gazte eta helduentzako

kultur ospakizunetan). Udal aldizkariaren kasuan, hitzaurrean bi hizkuntzek izango dute presentzia. Elkarrizketa eta erreportajeak batez ere euskaraz izango dira eta kasu horietan gaztelaniazko laburpena egingo da. Albiste laburrak euskaraz eta gaztelaniaz tartekatuko dira eta albisteen izenburua euskaraz izango da.

## **5.2 ERREGISTROA**

Udalan jasotzen diren dokumentuak nahiz Udalak berak igortzen dituenak idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira Udalaren sarrera-irteeren erregistroan, Euskararen Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera. Bi hizkuntza ofizialetan idatzita daudenak euskaraz inskribatuko dira.

Horrez gain, Udalak neurri eraginkorrak hartuko ditu sarrera-irteerak erregistratzeko erabilitako hizkuntzari buruz aplikazio informatikoei ematen duten informazioa eta Udalan jaso nahiz Udaletik irteten diren dokumentuen hizkuntzari buruz jasotzen den informazioa izan dadin kontraesanik gabekoa eta baliagarria hizkuntza ofizialen erabileraren bilakaera errealari jarraipen fidagarria egiteko. Hori bermatzeko erabakiak hartu eta azken bururaino eramango ditu Udalak, hala udal barruan (jarraibide zehatz eta argiak emango dizkie sarrera-irteeren erregistroan edota espedienteak kudeatzeko aplikazioan hizkuntzari buruzko eremuak betetzeko eginkizuna dagokien udal langileei), nola aplikazio informatiko horien diseinuaren ardura duen IZFErekiko harremanetan.

## **5.3 HAUTAKETA PROBAK**

Hautaketa probetan, prozesu osoan zehar bermatuko da euskarazko jarduna, beti eta ororen gaitasun errespetatuko delarik hautagaien hizkuntza hautua. Epaimahaiaren osaera erabakitzerakoan nahiz dokumentazioaren prestaketan ezinbestez aintzat hartuko den irizpidea izango da hizkuntzarena. Epaimahaian guztiak euskal hiztunak izatea ezinezkoa denean, epaimahaikideek neurriak hartuko dituzte euskara hautatu duten euskal hiztunei kalterik eragin gabe aritzeko.

- Hautaketa probetarako izena emateko garaian hautagaiari beti emango zaio probak euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera. Nolanahi ere, probak egin aurretik bere hizkuntza-hautua aldatzeko eskubidea aitortuko zaio.
- Ahozko azalpenak euskaraz izango dira hartzaileen hizkuntza-ezaugarriek hala eskatzen badute; gainerakoetan, euskaraz arituko dira lehenengo eta gaztelaniaz ondoren.

- Herritar ororen nahiz izena emandako hautagaien kontsultak erantzuteko behar besteko euskara-maila duen langile euskal hiztuna jarriko du Udalak.

#### **5.4 LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORRA**

Andoaingo Udalak langileentzat ikastaroren bat antolatzerakoan (barnekoa nahiz kanpoko eskaintza egiterakoan) hizkuntzaren aldagaia kontuan izango du Langileria sailak. Irizpide hauen arabera jokatuko da, aintzat harturik norberaren lan arloko formazioa osatzeko ez ezik lanerako hizkuntza-gaitasuna sendotzeko ere baliabide ezin hobea dela langileen prestakuntza orokorra:

- Irizpide orokor gisa kontuan izanik hizkuntza eskakizunen betetze-maila oso altua dela (% 97) nagusiki euskarazko prestakuntza saioak antolatuko ditu Udalak.
- Kanpo-ikastaroetan (IVAP, GFA...) lan-hizkuntza euskara duten sailtako langileek eta hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenek, aukera berdinean euskarazkoan parte hartuko dute. Langileria lansailak helburu hori lortzeko beharrezko neurriak hartuko ditu eta jarraipena egingo die.

#### **5.5 LANGILEEN TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK**

1/88 Udal Ordenantzako 24. artikulua jasotzen duenarekin lotuta, Andoaingo Udalak neurriak hartuko ditu euskaraz funtzionatzeko egokitutako ordenagailuak, programak eta tresnak jartzeko langileen eskura. Ordenagailuak, inprimagailuak, fotokopiagailuak, eskuko telefonoak eta lanerako beharrezko diren gainerako tresnak hizkuntza-aukeradunak eskuratzeaz arduratuko da Andoaingo Udala, halakorik dagoen guztietan.

Udalak, bere esku dagoen neurrian, beti bermatuko du lan-tresnetako hizkuntza-aukera:

- Programa informatiko komertzial orokorrak instalatzerakoan eta eguneraketak egiterakoan, euskarazko bertsiodun tresnak izanez gero, bertsio hori instalatuko zaie langile guztiei. Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten langileek aukera izango dute, hala eskatuz gero, gaztelaniazko bertsioa instalatzeko.
- Neurria egindako aplikazioak erosterakoan Andoaingo Udalak neurriak hartuko ditu aplikazio horiek hizkuntza-aukera izan dezaten, eta hala eskatuko dio dagokion hornitzaileari.
- Lana euskaraz egin ahal izateko, gutxienez honakoen euskarazko bertsioak instalatuko dira langileen ekipamenduetan: nabigatzailea, zuzentzaile ortografikoa, posta

elektronikoaren zuzentzailea, erabilera orokorreko hiztegiak (Elhuyar, Euskalterm, Zehazki...) eta hiztegi espezializatuak. Hiztegi orokor eta espezializatuak eskura izateko, nabigatzailearen arabera bateragarri den gehigarria (Euskalbar / Hiztegibar) instalatuko da nabigatzailearen tresna-barran.

## **5.6 UDAL BARRUKO KOMUNIKAZIOAK: AHOZ ETA IDATZIZ**

Lan-hizkuntzat euskara aukeratzen duten lansailek, organoek eta langileek barruko komunikazio ezberdinetan (posta elektronikoko mezuak, bilera-deiak, lantsailen arteko eskaerak, oharrak...) euskara erabiliko dute ohikotasunez idatziz nahiz ahoz. Lansailek Erabilera Planaren kudeaketarako definitzen duten mikroplanetan jasoko dute helburu hori eta sail bakoitzak egingo dio jarraipena.

Indar berezia jarriko da udal barruko ahozko lan-harremanetan euskararen erabilera areagotzeko, bai zinegotzien artean, bai langileen artean eta bai zinegotzien eta langileen artean ere.

Horrenbestez, lehentasunezkoa da plangintzaldi honetan ahozko lan-jardunak euskalduntzeko neurriak hartzea. Elkarrizketa elebidunak izateko behar besteko gaitasun pasiboa duten langile nahiz zinegotziek euskal hitzunei adierazi egingo diete eurekin euskaraz egin dezaketela.

## **5.7 HIZKUNTZAZKO PRESTAKUNTZA**

Lan-hizkuntza euskara izateko VI. Plangintzaldian ardatz nagusia izango da hizkuntzako prestakuntza eta Andoaingo Udaleko langileei eta ordezkari politikoei zuzendua izango da. Trebakuntza plan iraunkorra finkatu eta garatuko da plangintzaldian zehar. Honako baliabideak izango dituzte eskura:

- Langileen euskara maila hobetzeko IVAPen ikastaro eskaintza zabalduko da langileen artean.
- Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duten langileek euskaltegira joateko aukera izango dute.
- Mintegiak: langileen beharrezanetatik abiatuta antolatuko dira mintegiak, guztira urtean lau, hiruhilekoka antolatuta. Sailka eta galdetegi bidez identifikatuko dira beharrak. Langileek urtean mintegi batean behintzat parte hartzeko aukera izango dute.



- Irakasle elektronikoa: urte osoko zerbitzua da, langile guztiei eta ordezkari politikoei zuzendua, eta posta-elektronikoz emango dena. Bertatik hizkuntzako gomendio orokorren zabalkundea egingo da astero eta kontsultei ere erantzungo zaie. Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, kontsultak jasotzen diren egunean bertan erantzungo dira. Euskara Zerbitzuak izango du leiho elektronikoa kudeatzeko erantzukizuna.

## **5.8 AGINTARI POLITIKOEN HIZKUNTZA-GAITASUNA**

ETELeK 25. artikulua 9. puntuan jasotzen duenaren arabera, hautetsiek hizkuntza ofizialetan, ahozkoan eta idatzizkoan, behar besteko ulermen maila lortzea sustatuko da, udal bakoitzaren esku geratzen delarik hartarako zer nolako neurriak hartu behar dituen. Helburu nagusia, betiere, euskaraz dakienak udal jardunean euskara erabiltzeko mugarik ez izatea da, baina aldi berean, euskaraz ulertzen ez duten ordezkari politikoak dauden neurrian, haien eskubideak bermatuz euren esku jartzea ulermena bermatzeko baliabideak, betiere efizientzia ekonomikoaren ideia oinarrian hartuta. Helburu hori lortzeko ezinbestekoa da hainbat eragileren adostasuna eta borondatea.

Honako irizpideen arabera jokatu da agintari politikoaren hizkuntza-gaitasunari dagokionez:

- Ordezkari politikoek euskaltegiara joateko aukera izango dute hautetsi gisa dituzten betebeharrak aurre egiteko behar besteko ulermen maila lortu arte.
- Udalean euskara-maila hobetzeko antolatzen diren mintegietan parte hartzeko aukera eskainiko zaie eta bere lana euskaraz egin ahal izateko irakasle elektronikoa erabiltzeko aukera izango dute.

## **5.9 ITZULPEN, ZUZENKETA ETA INTERPRETAZIO ZERBITZUA**

*Andoaingo Udalean Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak* izeneko dokumentuaren 5.3 atala osatzera datoz honako neurriak:

- Euskara lansaileko itzulpen, zuzenketa eta interpretazio zerbitzuak Erabilera Planean jasotako helburuak lortzeko baliabide bezala ulertu behar ditugu, eta ezinbestekoa da horien erabilera arduratsua egitea.
- Bermatuko da hautetsiek jasotzen dutela euren egitekoak egoki betetzeko behar beste informazio. Ahal den guztietan sailean egindako idatzizko laburpenak edo ahozko

azalpenak erabiliko dira horretarako eta, beharrezkoa denean, Euskara Zerbitzuaren laguntzaz baliatzeko aukera izango dute sailek. Beraz, dokumentuak osorik itzuliko dira afektatutako zinegotzi titularrak gestio horretan zuzenean parte hartzen duenean eta, orduan ere, osorik itzultzea ezinbesteko denean. Sail bakoitzeko zinegotzi titularrak izango du saileko dokumentazioa itzultzea eskatzeko aukera.

- Udalaren itzulpen zerbitzuak gehien-gehienez 27.000 karaktere (normalean, 15 orrialde inguru) arteko itzulpenak egingo ditu, eta betiere eguneroko itzulpen-premiak betetzearen kalterik gabe. Karaktere kopuru horretatik gorakoak kasu guztietan sail bakoitzak Udaletik kanpora bidaliko ditu itzultzera. Itzulpenaren gastua sail bakoitzak hartuko du bere gain.
- Espedienteen kudeaketako aplikazioan dauden txantiloak eta dokumentu estandarizatuak euskaraz erabiltzeko egokituko dira bai hizkuntza kalitatearen ikuspegitik bai euskarazko eredua (zutabe bakarrekoa) erabiltzea erraztuz.
- Euskara Zerbitzuak funtzionamendu egokirako beharrezko baliabide teknikoak jarriko ditu lantsailen eta langileen eskura, hala nola, itzulpen memoriak. Lantsailek itzulpen memoriak erabili ahal izango dituzte eta Euskara Zerbitzuaren ardura izango da itzulpen memoria egunean mantentzea eta elikatzea.
- Indarrean jarraitzen dute interpretazio zerbitzuari dagozkionez Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko martxoaren 7an onartutako irizpideek eta funtzionamendu arauak. (ikus III. eranskina).

## **5.10 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA**

Andoaingo Udalak 2008. urtean onartu zituen bere kontratu administratiboetarako hizkuntza betebeharrak, onartu ere hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren ondorioz herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortzen zaizkien hizkuntza eskubideak bermatzeko xedez eta 86/1997 Dekretuaren 18.d) artikuluan ezarritakoaren arauz, erabilera planetan ezinbestez jaso beharreko neurrien artean sartzen baititu *"Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen"*.

Geroztik baina, aldaketak izan dira Sektore Publikoko Kontratuen Legean, kontratazio klausuletan hizkuntza-baldintzak txertatzeari buruzko jurisprudentzia bateratua sortu da, aldatu egin da euskararen jakite maila egiaztatzeko titulu eta moduei buruzko araudia ere, eta ETELe bere 7.8 artikularen bitartez arautu du udalen kontratazio administratiboko hizkuntza-baldintzen gaia.

ETELen 7.8 art.: "*Herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trabarik gertatu ez dadin indarreko legeriak onartzen dituen zehar-kudeaketa moduetako baten bitartez zerbitzua emateagatik, toki-erakundeek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan helburu hauek bermatze aldera: a) Kontratuaren xedek bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki-erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria. b) Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean. c) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan.*"

Aldaketa horien ondorioz eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2016ko apirilaren 26an onartutako jarraibide eta oinarri orokorren argitan, hainbat eguneratze eta moldaketaren premian da Andoaingo Udalaren Kontratu Administratiboetarako Hizkuntza Betebeharrei buruzko 2008ko erabakia. Azken hamar urteetako eskarmentuak ere agerian utzi du hori. Horrenbestez, EEPLA onartzen denetik hiru hilabeteko epean onartuko du Udalak 2008an onartutako hizkuntza betebeharrak indargabetu eta haien ordezkioak indarrean jarriko dituen kontratazio administratiborako hizkuntza-baldintzen dokumentua.

Honako printzipioei erantzungo diete hizkuntza-baldintzetan egin beharreko moldaketek:

- Udalaren betebeharra da kontratua arautuko duten lizitazio-iragarkiak, administrazio-klausula berezien agiriak, baldintza teknikoek agiriak eta kontratazioko gainerako dokumentuak bi hizkuntza ofizialetan ematea ezagutzera.
- Lizitatuzaileekin eta kontratistekin izan beharreko harremanak -ahoz eta idatziz- interesdunak aukeratzen duen hizkuntza ofizialean gauzatuko direla bermatuko du Udalak.
- Kontratuaren helburuetako bat herritarrei zuzenean zerbitzua ematea bada, edo oro har herritarrekin harremana izatea badakar, erabiltzaileak edo hirugarren horrek

- aukeratzen duen hizkuntza erabiliko dela bermatzeko behar besteko euskara-gaitasuna eskatuko da kaudimen teknikoaren atalean, betiere proportzionaltasunez, eta eskakizun hori arrazoitu egingo da kontratazio-espeditentean. Funtsezko kontratu-klausula gisa sartuko da baldintza administratibo berezien agirian, eta ez betetzeak kontratua suntsituta geratzea eragin dezake.
- Helduen Euskalduntzeko Oinarrizko Curriculumean definitutako euskara-mailen arabera eta kontratu bakoitzean beharrezko diren trebetasunetara mugatuz zehaztuko da kasuan kasuko langileei eskatuko zaien hizkuntza-gaitasuna.
    - Hizkuntza-gaitasuna egiaztatu ahal izango da agiri bidez, betiere Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan eta Dekretu horren 3. artikulua aldatzen duen uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuan xedatutakoari jarraiki.
    - Hizkuntza-gaitasuna egiaztatetik salbuetsi ahal izango dira langileak, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arauz, zeina baita euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoari buruzkoa.
    - Udalak mailaketa-probak antolatuko ditu hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko titulu baliozkorik ez duten hautagaienentzat.
  - Herritarrei zuzenean zerbitzua ematea helburu izan ez eta oro har herritarrekin harremana izatea ez dakarten kontratuetan ez da hizkuntza-gaitasunari buruzko baldintzarik jasoko kaudimen teknikoaren atalean, baina bai hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko baldintzak, kontratuaren exekuzio faseko baldintzen artean. Ez dira funtsezko kontratu-klausula gisa jasoko eta, baldintza administratibo berezien agirian hala aurreikusten bada, gainerako kontratu-klausulentzat bezala, zigorra jartzea eragin dezake ez betetzeak:
    - Obra- eta mantentze-kontratuetan eskatuko da, errotulu, argitalpen, seinale, ohar, komunikazioak eta, oro har, interlokuzioak euskaraz egon daitezela bermatzea.

- Hornidura-kontratuen kasuan, etiketetan edo/eta produktuaren bilgarrian eta produktuaren dokumentazio teknikoan eta jarraibideetan kontratistak euskara erabiliko duela bermatuko da. Horretarako, kontratistak bi hizkuntza ofizialetan emango ditu kontratuaren xede diren ondasun eta produktuen eskuliburuak eta dokumentazioa, baita softwareen testu eta soinu interfazeak ere.
- Azterlanak, txostenak, proiektuak eta antzekoak egin eta aurkeztea xede duten kontratazioetan, kontratua gauzatzat emateko baldintza izango da lanak Udalak eskatutako hizkuntzetan edo hizkuntzan entregatzea. Irizpide orokorra bi hizkuntzetan entregatzea izango da. Euskaraz entregatzea eskatzen denean, horrela adieraziko da baldintza teknikoaren oinarrietan.
- Kontratu bakoitzaren arduradunari dagokio kasuan kasuko hizkuntza baldintzen betetze mailaren jarraipena egin eta, beharrezko denean, neurri zuzentzaileak bideratzea.

## **6 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO BITARTEKOAK: ANTOLAKETA ETA ORGANOAK**

EEPLAN era bateko edo besteko parte-hartzea duten eragile guztien arteko koordinazioak eta antolaketak planaren arrakastarako duten garrantziaz jabeturik, eta ahalik eta kudeaketarik eraginkorrena lortze aldera, honakoa izango da antolaketa-egitura:

### **6.1 JARRAIPEN ORGANO GORENA**

Honako kideek osatuko dute:

- Alkatea.
- Euskara arloko zinegotzi arduraduna.
- Saitetako zinegotzi arduradunak.
- ENBAko zinegotziak.
- Sail bakoitzeko arduradun teknikoa eta bideratzailea.
- Langile batzordeko kideak.
- Euskara Zerbitzua: euskara teknikaria, hizkuntza normalizatzailea eta aholkularia.

Eginkizunak, berriz, hauek dira:

- Planaren jarraipena eta balorazioa egitea, eta ekintza zuzentzaileak erabakitzea.
- Planari dagozkion erabaki estrategikoak hartu eta irizpideak betetzen direla bermatzea.
- Plana gauzatzeko beharrezko baliabideak esleitzea.

Urtean bi aldiz elkartuko da, urtearen erdi aldera, Kudeaketa Planaren balorazioa egiteko, eta urte bukaeran, Kudeaketa Plan berria osatzeko.

## **6.2 EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO BATZORDEA (ENBA)**

ENBAren eginkizunak honakoak dira:

- Planaren jarraipen iraunkorra egingo du, Jarraipen Organo Gorenak egiten ez duen guztian.
- Planari dagozkion proposamenei buruzko irizpena ematea.
- Planaren jarraipena egitea eta behar diren neurri zuzentzaileak zehaztea.

## **6.3 BIDERATZAILEAK**

Sail bakoitzean bertako langile bat izango da saileko bideratzailea.

Egiteko hauek dituzte bideratzaileak:

- Sailetako beharrak identifikatu eta Euskara Zerbitzuari jakinaraztea.
- Saileko itzulpen-zuzenketak egiten laguntzea.
- Mikroplanen jarraipena egin eta horren berri sailean ematea.

Plana onartu eta bi hilabeteko epean izendatuko da sail bakoitzeko bideratzailea, langilearekin berarekin adostuta. Langile bakoitzak bi urtez jardungo du bideratzaile lanetan. Zuzeneko harremana izango du hizkuntza normalizatzailearekin, hura izango baita bere solaskide nagusia.

## **6.4 LANTALDEAK**

Urtez urte eta beharren arabera sortuko dira gai espezifikoak lantzeko lantaldeak. Gai espezifiko horiek izango dira urteko Kudeaketa Planean egoki irizten diren gaiak. Euskara Zerbitzuaren eskutik antolatu eta bideratuko dira lantaldeak eta behar beste bilera egingo dituzte.

Honako kideek osatuko dute:

- Gai espezifikoarekin lotura zuzena duten langileak, gaiaren ezagutza teknikoa edota motibazioa dutenak.

Egiteko hauek dituzte:

- Lantaldeak dituen helbururako ekarpenak egin eta proposamenak zehaztea, dagokion lekuan aurkezteko.

## **6.5 EUSKARA ZERBITZUA**

Hizkuntza normalizatzailea da EEPLAren exekuzioaren arduraduna. Euskara teknikariaren eta Euskara arloko zinegotzi arduradunaren irizpideak kontuan hartuko ditu horretarako.

Bere eginkizunak, berriz, honakoak dira:

- Plana dinamizatzea eta aholkularitza ematea.
- Erabilera plana aurrera eramateko eta ebaluatzeko metodologiak proposatzea.
- Saileko arduradun eta bideratzaileei helburuak lortzeko laguntza eta aholkularitza ematea.
- Irakasle elektronikoa kudeatzea: hizkuntza gomendioak bidali eta kontsultak erantzutea.

## **7 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

VI. Plangintzaldian zehar, 86/1997 Dekretuaren 19.3 artikulua agintzen dituen ebaluazioekin batera, Andoaingo Udalak honako sistemak erabili ahal izango ditu EEPLAren jarraipen eta ebaluaziorako:

- **Barne-auditoriak:** Modu mailakatuan eta lehenetsitako arloetatik hasita, urtero egingo dira sailetan neurrien betetze-mailaren jarraipena egiteko. Irizpideen betetze-mailari jarraipena egiteaz haratago, hobekuntzarako ekintza zuzentzaileak zehaztuko dira beharrezko ikusten denean.
- **Mikroplanak:** Erabilera Planeko helburuak mikroplanen bidez hedatuko dira lansailetan. Definitzea eta jarraipena egitearen ardura sail bakoitzeko arduradunari dagokio, eta saileko bideratzailearekin lankidetzan jardungo du horretan, betiere hizkuntza normalizatzailearen zuzendaritzapean.
- **Langileekin jarraipen pertsonalizatua:** hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileekin konpromiso zehatzak adostuko dira euskararen erabileran urratsak egiteko eta urtean bi aldiz -urtearen erdialdera eta urte bukaeran- langile horiekin jarraipen-bilerak egingo dira konpromisoen gauzatze-maila ezagutzeko eta neurri zuzentzaileak ezartzeko nahiz helburu berriak adosteko.
- Udalak, kanpo ebaluazioan oinarritutako **BIKAIN ziurtagiria** VI. Plangintzaldiaren amaierarako eskuratzea helburu izaki, plangintzaldian zehar aurretiazko autodiagnostikoa egin eta neurri espezifikoko zehatzak eta indartzaileak hartuko ditu.

VI. Plangintzaldiaren bukaeran helburuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle nagusiak jaso dira adierazle panelean, adierazle bakoitzaren deskribapena eta kalkulu moduarekin batera, dokumentu honen IV. eranskinean.





## **I. ERANSKINA:**

### **ANDOAINGO UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA HAUEI DAGOZKIEN DERRIGORTASUN-DATAK**

Andoaingo Udaltzaren 2018ko urtarrilaren 25ean egindako ohiko batzaraldi plenarioan hartu zuen, beste erabaki batzuen artean, Udaltzaren lanpostu-zerrenda eta plantila organikoa aldatzeko erabakia. Organigrama aldatzearekin batera, erabaki hark aldatzea nabarmenak ekarri zituen ordura bitartean indarrean egondako lanpostu-zerrendarekiko, besteak beste 34 lanpostu berrien sorrera ekarri zuelako eta hainbat lanposturi aldatu egin zitzaizkielako funtzioak eta, batzuetan, baita sailkapen-taldea edota izena bera ere.

Organigrama aldatzeko ekarri zuen bestelako aldatetarik ere lanpostu-zerrendari dagokionez: amortizatutako lanpostuak, lansail batetik bestera pasatakoak, bategindako bi lansailatik sortutako lansail berria... Baina hizkuntza eskakizunei buruzko proposamena egiteko garaian bereziki kontuan hartu ditugunak honakoak dira: lanpostu berrien sorrera, lehendikako lanpostuen funtzio aldatetarik eta hainbat lanposturen sailkapen-taldea aldatu izana. Halaber, derrigortasun-datak asignatzeko garaian kontuan hartu dugu, nola ez, 130 lanpostu izatetik 149 izatera pasa zela Andoaingo Udaltzaren lanpostu-zerrenda eta derrigortasun-indize berria dugula 2018-2022 plangintzaldirako, % 65,16koa.

Andoaingo Udaltzaren lanpostu-zerrendari buruz Plenoak 2018ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakiek hizkuntza eskakizunei buruzko hainbat erabaki ezinbestez hartu beharra dakarte. Batetik, sortu berri diren 34 lanpostuetako bakoitzari hizkuntza eskakizuna (HE) asignatu behar zaio. Bestetik, aztertu egin behar da funtzioetan aldatetarik izan dituzten lehendikako 5 lanpostuen hizkuntza eskakizunak aldatu beharrik ba ote dagoen, hain zuzen ere lanpostu bakoitzaren funtzioen arabera delako hizkuntza eskakizuna, lanpostua betetzeko edo bertan lan egiteko beharrezko den euskarazko hizkuntza-gaitasun maila zehazten duena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 97.2 artikulua adierazten duen bezala.

Halere, proposamen honek ez ditu jasotzen bakarrik lanpostu berrien eta funtzioetan aldatetarik izan dituzten lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak. Hori baino irismen zabalagoko proposamena da.

Euskararen erabilera normalizatzeko plangintzaldietan VI.a izango da 2018-2022 aldiari dagokiona eta aurten, 2018an, bost urte horietarako plana onartzea dagokigun honetan, Andoaingo Udaltzaren lanpostu-zerrendako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak bere osotasunean berrikusi eta egoki irizitako aldatetarik egiteko asmoa du Udaltzaren. Asmo horri bide ematera dator proposamen hau. Legez ere halaxe dagokio Herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 19.1 artikulua araberak: *"Euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalizatzeko planak onartuko dituzte plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, eta horrelakorik onartuta*

*duten kasuetan, hauei egin beharreko egokitzapenak, planaren inplementaziorako egoki derizkioten aldaketak lanpostu-zerrendan jasoko direlarik".*

Osoko berrikuspen hori orain egiteko arrazoi nagusia da, plangintzaldiaren lehen urtea izateaz gain, jakina, azken hamarkadan onartu dela horretarako bide ematen duen arau eta irizpiderik hala EAE mailan nola eremu zabalagoetan:

- Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako *Europako Erreferentzia Markoa*. Europako Kontseiluaren ekimenez argitaratu zen 2001ean. Edozein hizkuntzaren ikas prozesuan mailaketa zehazteko estandar garbiak eskaintzeaz gain, ikasleen emaitzak nazioartean era konparagarrian ebaluatzeko aukera ematen du.
- 47/2012 DEKRETUA, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko dena.
- Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculum (HEOC). Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak 2015eko uztailaren 22an emandako Aginduz onartutakoa. Europako Markoaren eskalekin erabat parekatzen du Curriculum, eta Markoak jasotzen dituen ikasketa prozesuko sei mailak definitzen ditu, euskararen egoera soziolinguistikora egokituz.
- Hizkuntza eskakizunak esleitzeko proposamena, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza egin eta HAKOBAK (Herri Administrazioen Koordinaziorako Batzordea) 2017ko abenduan onetsitakoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa edo *Udal Legea*.

Azken horretan zehazten da, besteak beste, gaztelania bezalaxe hizkuntza ofiziala den euskara herri-administrazioen erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango dela. Helburu horretarako bidean Andoaingo Udalak eman beharreko urratsak eta hartu beharreko neurriak jasoko ditu erabilera planak, eta erabilera planaren oinarri-oinarrian dago lanpostu bakoitzaren hizkuntza eskakizuna. Horixe baita, hizkuntza eskakizuna alegia, lanpostu bakoitzaren funtzioak euskaraz bete ahal izateko hizkuntza-gaitasunaren neurria zehazten duena. Lanpostu bakoitzaren funtzioak betetzeko beharrezko den euskara-gaitasunari dagokiona baino hizkuntza eskakizun handiagoa eskatzeak ez du bermatzen, besterik gabe, lana euskaraz egiteko gaitasuna, hori eguneroko erabilerarekin eta hizkuntza-prestakuntza iraunkorraren laguntzaz eskuratzen baita. Baina egia da, bestalde, gutxieneko ezagutza mailatik behera eskatuta ere ezinezkoa dela erabilera bermatzea.

Goian aipatutako arau eta irizpideak hartu ditugu oinarritzat, eta jakina, Udaleko lanpostuei hizkuntza eskakizunak asignatzen hasi ginenetik eskuratu dugun eskarmentua ere bai, hala Andoaingo Udaleko lanpostu berriei hizkuntza eskakizunak esleitzeko nola lehendik asignatutakoak berrikusteko.

Horretarako abiapuntuko irizpide nagusia izan duguna, beste zenbaiten artean, estuki loturik dago lanpostu horietako bakoitza betetzeko nahiz bertan jarduteko eskatzen den titulazio akademikoarekin. Horregatik aipatu dugu proposamenaren hasiera-

hasieratik 2018ko urtarrileko Plenoan hartutako erabakiek eragindako aldaketa nabarmenen artean dagoela zenbait lanposturen sailkapen-taldea aldatu izana, lanpostu bakoitzean jarduteko eskatzen den titulazio akademikoa lanpostuari dagokion sailkapen-taldearen arabera delako, salbuespenak salbuespen. Irizpide nagusia da hori, ez bakarria, lanpostuen sailkapen-taldeak, funtzioak eta hizkuntza eskakizunak elkarri lotzen dizkion sistemaren barne-koherentzia funtsezkoa baita, gure ustez, euskara ere lan-hizkuntza ohikoa eta normala bihurtzeko oinarriak ondo jarri nahi baditugu.

Proposamen honek beraz, funtsean, irizpide nagusi bat finkatzen du, funtzio komunikatibo espezifikoengatik salbuespenak salbuespen, lanpostu bakoitzari asignatuko zaion HE lotzen duena lanpostua betetzeko edo lanpostuan jarduteko eskatzen den titulazio akademikoarekin edo, beste hitz batzuekin esanda, lanpostuaren sailkapen-taldearekin.

Honako hauxe da hain zuzen irizpidea: lanpostu baterako eskatzen den titulazio akademikoari dagozkion ikasketen erdia edo gehiago euskaraz egiteagatik 47/2012 Dekretuak zein hizkuntza-maila egiaztatzen duen, hizkuntza-titulu edo ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuetsi alegia, huraxe izango da lanpostuari asignatuko zaion HE. Horixe izango da, beste zenbaiten artean, irizpide nagusia, ez bakarria, nahiz eta, dagoeneko birritan aurreratu dugun moduan, izango den goragoko HE asignatzeko aukerarik lanpostuaren funtzio komunikatibo espezifikoek hala eskatzen dutenean, ezin baitugu ahaztu lanpostu bakoitzaren funtzioak euskaraz betetzeko beharrezko den gaitasun maila dela hizkuntza eskakizuna, eta ez besterik.

Aurreko paragrafoan esandakoa beste hitz batzuekin esateko, herritar bati, administrari izateko eskatzen zaion formazio akademikoa (batxilergoa edo goi-mailako teknikari (LH) ikasketak) euskaraz egiteagatik B2 mailako hizkuntza-gaitasuna (2. HE) aitortzen bazaio, logikoa dirudi administrazioan administrari lanpostuan jarduteko ere B2 (2. HE) eskatzea (ez 3. HE, ez 1. HE), non eta lanpostuak ez duen funtzio komunikatibo espezifikoren bat justifikatzen duena C1 (3. HE) eskatzea. Euskara Zerbitzuko administrariaren kasua da hori, bere funtzioetan zehazki jasota dagoen bezala, administrariaren ohiko egitekoek gain Euskara Zerbitzuaren programa eta eginkizunen burutzapenean zuzenean parte hartzea baitagokio. Eta hala egiten du, besteak beste, langileen trebakuntzan eta Udalaren kontratazio administratiboen eremuan Euskara Zerbitzuak gestionatu beharreko azterketak prestatu, egin eta ebaluatzerakoan. Kontuan harturik euskaltegiko irakasleei C1 maila eskatzen zaiela eginkizun horietarako, 3. HE asignatu diogu proposamenean.

Antzeko kasua da Udaleko idazkari lanpostuarena. Udaleko idazkari lanposturako eskatzen den titulazio akademikoari erreparatuz gero C1 (3. HE) beharko luke lanpostuak - *zuzenbide ikasketak euskaraz egindako edozein herritar hizkuntza maila hori hizkuntza-titulu edo ziurtagiri bidez egiaztatzen salbuetsita bailegoko 47/2012 Dekretuari jarraiki*-, baina badu funtzio komunikatibo espezifiko bat justifikatzen duena lanpostuari C2 (4. HE) jartzea, eta horixe asignatu diogu proposamenean. Udalaren abokatu gisa, epaitegietan Udalaren ordezkari eta defentsan jardutea dagokio udal gobernu taldeak hala iritzitako kasuetan, Udalak 2007.02.28an hartutako erabakiaren bidez lanpostu-zerrenda aldatu eta funtzio hori gehitu baitzuen idazkariak lehendik zituenei.

Orain arte azaldutakoez gain honako irizpide hau ere erabili dugu hizkuntza eskakizunen asignaziorako: funtzionalki zerbitzu ezaugarriak dituzten atalen arduradun lanpostuei 3. HE dagokie, organigraman dauden bezala daudela, eta eskatzen zaien formazio akademikoa edozein dela ere.

Zenbait lanposturi asignatu beharreko hizkuntza eskakizunari buruzko gogoetan azaleratu da hizkuntza eskakizun asimetricoen premiari buruzko hausnarketa ere, edo trebetasunkako egiaztapenari buruzkoa. Adibide bat jartzeko, jakinarazle lanpostuak edo harreragilearenak mintzamenean 2. HE behar du, baina behar ote du maila hori bera idazmenean? Eskulangileek, oro har, mintzameneko trebetasunak egiaztatu behar izatea ulergarria da, baina justifikatuta ote dago idazmenean ere eskatzea?

Oraingoz horretan geratu dira kezka horiek, hausnarketa mailan alegia, gaur gaurkoz, trebetasunkako egiaztatzeari ateak lege-babesarekin zabaltzen ez zaizkion bitartean ez baita posible hizkuntza eskakizun asimetricoak asignatzea.

Urtarrilean Udalaren lanpostu-zerrenda aldatzeko erabakia hartu zenetik proposamen hau aurkeztu dugun arte baina, egin dugu hizkuntza eskakizunari buruzko txosten eta proposamen gehiago ere. Guztiak Langileria, Antolakuntza eta Barne Araugintzako lansailaren eskariz eta lanpostu bakanen hizkuntza eskakizunari eta derrigortasun-datei buruz egindakoak izan dira, batzuetan lanpostuak betetzeko helburuarekin eskatutakoak eta beste batzuetan lan-poltsak osatzeko xedez.

Eskaera horietako biren ondorioz lanpostu-zerrenda aldatu ere aldatu du bitan Udalak (2018.05.31ko batzaraldi plenarioan, sortu berria den 203 kodeko Kontratazio eta ondare teknikari lanpostuari 3.HE eta 2018.05.31ko derrigortasun-data asignatuz; 2018.07.19ko plenoan, funtzioetan eta bestelako ezaugarrietan hainbat aldaketa izandako 402 kodeko Diruzain lanpostuari 3.HE eta 2018.07.19ko derrigortasun-data asignatuz).

Dena den, sistema osoaren koherentziari begira, irizpide berberak erabili ditugu lanpostu bakanentzako proposamen horiek guztiak egiteko garaian eta lanpostu-zerrenda osoko hizkuntza eskakizunari eta derrigortasun-datei buruzko proposamen hau egiterakoan.

Honaino, lanpostuei asignatutako hizkuntza eskakizunari buruzko azalpenak. Eta hemendik aurrerakoak, berriz, derrigortasun-indizeari dagozkionak.

Derrigortasun-datei dagokienez berriz, kontuan izan behar da VI. plangintzaldirako derrigortasun-indizea 2016ko Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan euskararen ezagutza-mailari buruz jasotako datuetatik ateratakoa dela eta % 65,16ko indizea dela Andoaingo Udalari dagokiona (% 60,75ekoa zen 2013-2017 plangintzaldian). Indize horrek gutxieneko izaera duenez, epai bidez hala adierazia baitu EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak, Andoaingo Udalaren kasuan adierazten duena da, legea betetzeko, gutxienez 97 lanpostuk behar dutela derrigortasun-data duen hizkuntza eskakizuna. Udalak hala ulertu izan du aurreko plangintzaldietan ere, eta horren adierazle da V. plangintzaldiaren amaieran, % 60,75eko gutxieneko indizearekin, % 73,8koa zela Udalaren indize erreala, ondorengo plangintzaldietan inola ahal bada apaldu beharko ez litzatekeena.

Hona hemen, proposamen honetako derrigortasun-daten banaketari buruzko datu garrantzitsuenak, lehen hurbilketa bat egiteko lagungarri:

- Lanpostu-zerrendako lanpostuak guztira, 149.
- Derrigortasun-indizearen arabera (% 65,16) derrigortasun-data behar duten lanpostuak, gutxienez 97.
- Proposamenean derrigortasun-data duten lanpostuak, 115 (% 77,18). Portzentaje horrek adierazten du, hain zuzen, zein den Udalaren indize erreala.
- Proposamenean merezimenduzko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak, 31 (% 20,80).
- 4. HE TG (Teknikari Gaitua) duten lanpostuak, 3 (% 2,02). *Bere zeregin eta eginkizunen muina euskara bera duten lanpostuak TG kodearekin jaso behar dira lanpostu-zerrendetan, 4. HE asignatuko zaie eta une horretatik bertatik izango da derrigorrezkoa. Ez dira kontabilizatu behar derrigortasun-indizea osatu eta betetzeko. Horixe da, laburxeago esanda, 86/1997 Dekretuaren 14. atalak dioena.*

Derrigortasun-data ezartzeko kontuan hartu ditugun irizpideak eta irizpideen ordena:

- •VI. plangintzaldiko Erabilera Planaren helburuetara egokitzea.
- Jendaurreko lanpostuak izatea.
- Herritarrekin zerbitzu-hizkuntza gisa euskara ere erabiltzea dagokien lanpostuak izatea.
- Udalaren ohiko funtzionamenduan, epe labur eta ertainari begira, euskara lan-hizkuntza gisa erabiltzea jada badagokien edo plangintzaldiaren barruan egokituko zaien lanpostuak edo aipatutako lanpostu horietako langileekin ohiko lan-harremana dutenak izatea.

Praktikan, zerbitzuetako arloko eskulangileen lanpostuei izan ezik, oro har, gainerako lanpostuei dagokie derrigorrezko hizkuntza eskakizuna.

Derrigortasun-datak jartzeko irizpideez ari garela bada inolaz ere ahaztu ezin dugun printzipio nagusi bat, hain zuzen, herritarra dela bi hizkuntza ofizialen artean Udalarekiko harreman-hizkuntza hautatzeko eskubidearen titular bakarra. Udalari, kasu horretan, obligazioa dagokio, herritarrek egindako hizkuntza haututa efektiboki errespetatzeko obligazioa. Orogen gainetik errespetatu beharreko printzipioa da hori, errespetatu ere zerbitzu guztietan eta, gainera, zerbitzu bakoitzari dagokio hori bermatzea. Horrenbestez, derrigortasun-datak jarri ditugu zerbitzu bakoitzak hori bermatzeko modua izan dezan. Beraz, etorkizunean ikusiko balitz zerbitzuren batean jarritako derrigortasun-datekin ez dela bermatzen herritarren hizkuntza hautua efektiboki errespetatzea, berrikusi egin beharko litzateke derrigortasun-daten asignazioa.

Eta derrigortasun-data izatekotan nola erabaki zein data dagokion lanpostu bakoitzari? Jakina da 2018ko urtarrilean udalbatzak hartutako erabakien ondorioz hainbat lanpostu sortu zela lanpostu-zerrendan eta Udalaren erabakia izan dela lanpostu berri horiek

dituzten funtzioak edo antzekoak azken urteotan bete dituzten udal langileei aukera ematea sortu berri diren lanpostu horietan aldi baterako izendatuak izan daitezten. Beste hitz batzuekin esanda, Udalak lanpostu-zerrendan jaso nahi izan du urteen poderioan osatuz joan den bere giza baliabideen multzoa, lanpostu guztien egoera behar bezala erregularizatzeko. Hori posible izan dadin, honako irizpidea erabili dugu lanpostu berri horien hizkuntza eskakizunei derrigortasun-datak jartzea proposatu dugunean:

- Lanpostuan aldi baterako izendatua izateko aukera duen langileak egiaztatua badu lanpostuari dagokion HE, orduan, derrigortasun-data izango du hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak berrikusteko plenoa egiten den egunekoa.
- Aldiz, aldi baterako izendatua izateko aukera duen langileak egiaztatu gabe badauka lanpostuari dagokion HE, orduan, derrigortasun-data izango du plangintzaldia amaitzen den egunekoa (2022.12.31).

Horiek dira Andoaingo Udalaren lanpostu-zerrendako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak berrikusteko proposamena bere osotasunean ulertzeko gakoak eta azalpenak. *Proposamenari dagozkion gainerako xehetasunak, jarraian ageri den taulan.*

LANSAILA	LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUA	SAILKAPEN TALDEA	HE	TG	DERRIGORTASUN DATA
ALKATETZA	101	ALKATEAREN IDAZKARIA	C1	2		-
ALKATETZA	102	TOKIKO GOB. TALD. IDAZKARIA	C1	2		-
IDAZKARITZA	201	IDAZKARIA	A1	4		2001-12-31
IDAZKARITZA	202	ADMIN.OROK.TEKNIKARIA	A1	3		2018-10-25
IDAZKARITZA	203	KONTRATAZIO ETA ONDARE TEKN	A1	3		2018-05-31
IDAZKARITZA	204	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
IDAZKARITZA	205	ADMINISTRARIA	C1	2		2001-12-31
IDAZKARITZA	206	ADMNISTRARIA	C1	2		1990-07-25
IDAZKARITZA	207	ARTXIBARIA	C1	3		2018-10-25
IDAZKARITZA	208	ARTXIBOKO ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
IDAZKARITZA	209	KIUB-EKO ARDURADUNA	C1	3		2018-10-25
IDAZKARITZA	210	HIRITARREN HARRERAKO ADMINISTR	C1	2		2018-10-25
IDAZKARITZA	211	HIRITARREN HARRERAKO ADMIN	C1	2		2018-10-25
IDAZKARITZA	212	HIRITARREN HARRERAKO ADMIN	C1	2		2018-10-25
IDAZKARITZA	213	JAKINARAZLEA	E	2		2011-09-29
LANGILERIA, ANTOLAK, BARNEARA	301	LANGIL. ANT. B. AR. ARDURADUNA	C1	3		2007-12-31
LANGILERIA, ANTOLAK, BARNEARA	302	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
LANGILERIA, ANTOLAK, BARNEARA	303	ADMINISTRARIA	C1	2		2002-11-07
LANGILERIA, ANTOLAK, BARNEARA	304	LANGILERIAKO ETA L.A.PREB AOTa	A1	3		2018-10-25
LANGILERIA, ANTOLAK, BARNEARA	305	LANGILERIAKO ETA L.A.PREB ADMI	C1	2		2018-10-25
LANGILERIA, ANTOLAK, BARNE	306	BARNE KUDEAKETAKO TEKNIKARIA	A2	3		2018-10-25



LANSAILA	LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUA	SAILKAPEN TALDEA	HE	TG	DERRIGORTASUN DATA
ARA						
LANGILERIA, ANTOLAK, BARNE ARA	307	INFORMATIKARI ARDURADUNA	C1	3		2022-12-31
LANGILERIA, ANTOLAK, BARNE ARA	308	INFORMATIKARI LAGUNTZAILEA	C1	2		2018-10-25
EKONOMIA ETA OGASUNA	401	KONTUHARTZAILEA	A1	3		2018-10-25
EKONOMIA ETA OGASUNA	402	DIRUZAINA	A1	3		2018-07-19
EKONOMIA ETA OGASUNA	403	ERRENTA ETA ORDAINARAZPEN ARDU	C1	3		2004-11-25
EKONOMIA ETA OGASUNA	404	DIRUBILTZAILEA	C1	2		2018-10-25
EKONOMIA ETA OGASUNA	405	KONTUHARTZ.ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
EKONOMIA ETA OGASUNA	406	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
EKONOMIA ETA OGASUNA	407	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
EKONOMIA ETA OGASUNA	408	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
EKONOMIA ETA OGASUNA	409	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
EKONOMIA ETA OGASUNA	410	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	501	ARKITEKTOA	A1	3		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	502	ADMIN.OROK.TEKNIKARIA	A1	3		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	503	ARKITEKTO TEKNIKOA	A2	3		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	504	HIRIG.-OBRETAKO ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	505	KATASTROKO ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	506	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	507	ADMINISTRARIA	C1	2		1998-07-31
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	508	ARKITEKTO TEKNIKOA	A2	3		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	509	OBRA-ZERBITZUETAKO ARDURADUNA	C1	2		2014-04-29
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	510	ADMINISTRARIA	C1	2		1998-07-31
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	511	OFIZIAL ITURGINA	C2	1		-

LANSAILA	LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUA	SAILKAPEN TALDEA	HE	TG	DERRIGORTASUN DATA
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	512	OBRA-ZERBITZUETAKO OFIZIALA	C2	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	513	OFIZIAL ELEKTRIZISTA	C2	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	514	OFIZIAL IGELTSEROA	C2	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	515	OFIZIAL PINTOREA	C2	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	516	2. MAILAKO OFIZIAL ELEKTRIZIST	C2	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	517	OBRA-ZERBITZ.PEOIA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	518	PEOI PINTOREA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	519	PEOI IGELTSEROA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	520	LAN ANITZETARAKO LANGILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	521	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	522	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	523	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	524	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	525	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	526	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	527	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	528	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	529	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	530	KALEGARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	531	ESKOLAZAINA	E	2		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	532	GARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	533	GARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	534	GARBITZAILEA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	535	INGURUMEN TEKNIKARIA	A2	3		2018-10-25
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	536	BASO LAN-TALDEKO OFIZIAL/ARDUR	C2	2		2002-11-07
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	537	BASO LAN-TALDEKO PEOIA	E	1		-

LANSAILA	LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUA	SAILKAPEN TALDEA	HE	TG	DERRIGORTASUN DATA
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	538	BASO LAN-TALDEKO PEOIA	E	1		-
HIRIGINT. ZERB. ETA INGURUMENA	539	BASO LAN-TALDEKO PEOIA	E	1		-
EUSKARA ZERBITZUA	601	EUSKARA TEKNIKARIA	A2	4	TG	-
EUSKARA ZERBITZUA	602	HIZKUNTZA NORMALIZATZAILEA	A2	4	TG	-
EUSKARA ZERBITZUA	603	ITZULTZAILE-INTERPRETEA	C1	4	TG	-
EUSKARA ZERBITZUA	604	ADMINISTRARIA	C1	3		2018-10-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	701	HEZK-KULTURAKO TEKNIKARIA	A2	3		2018-10-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	702	HEZK-KULTUR TEKN. LAGUNTZAILE	A2	3		2018-10-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	703	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	704	ADMINISTRARIA	C1	2		1994-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	705	HARRERAGILEA	E	2		2018-10-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	706	MUSIKA IRAKASLEA	A1	3		1994-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	707	MUSIKA IRAKASLEA	A1	3		1994-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	708	MUSIKA IRAKASLEA	A1	3		2001-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	709	MUSIKA IRAKASLEA (BIOLINA)	A2	3		1999-02-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	710	MUSIKA IRAKASLEA (TXIRULA)	A2	3		1999-02-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	711	MUSIKA IRAKASLEA (KLARINETEA)	A2	3		1999-02-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	712	MUSIKA IRAKASLEA (TRONPETA)	A2	3		1999-02-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	713	MUSIKA IRAKASLEA (PERKUSIOA)	A2	3		1999-02-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	714	MUSIKA IRAKASLEA (KANTU KORALA)	A2	3		1994-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	715	MUSIKA IRAKASLEA (GITARRA)	A2	3		2022-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	716	MUSIKA IRAKASLEA (SAXOFOIA)	A2	3		2018-10-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	717	LIBURUTEGIKO ARDURADUNA	A2	3		1998-07-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	718	LIBURUZAINA	A2	3		2002-11-07
HEZKUNTZA ETA KULTURA	719	LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	C2	2		2018-10-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	720	HAUR ESKOLAKO ARDURADUNA	A2	3		1994-12-31

LANSAILA	LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUA	SAILKAPEN TALDEA	HE	TG	DERRIGORTASUN DATA
HEZKUNTZA ETA KULTURA	721	HAUR ESKOLAKO HEZLEA	A2/C1	3		1994-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	722	HAUR ESKOLAKO HEZLEA	A2/C1	3		1990-07-25
HEZKUNTZA ETA KULTURA	723	HAUR ESKOLAKO HEZLEA	A2/C1	3		1994-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	724	HAUR ESKOLAKO HEZLEA	A2/C1	3		1994-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	725	HAUR ESKOLAKO HEZLEA	A2/C1	3		1994-12-31
HEZKUNTZA ETA KULTURA	726	SUKALDARIA	E	2		-
GIZARTE ZERBITZUAK	801	GIZARTE ZERB.ARDURADUNA	A2	3		2018-10-25
GIZARTE ZERBITZUAK	802	GIZARTE LANGILEA	A2	3		1994-12-31
GIZARTE ZERBITZUAK	803	GIZARTE LANGILEA	A2	3		1998-07-31
GIZARTE ZERBITZUAK	804	GIZARTE LANGILEA	A2	3		2018-10-25
GIZARTE ZERBITZUAK	805	GIZARTE LANGILEA	A2	3		2018-10-25
GIZARTE ZERBITZUAK	806	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
GIZARTE ZERBITZUAK	807	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
GIZARTE ZERBITZUAK	808	HARRERAGILEA	E	2		2000-01-28
ENPLEGUA ETA GAZTERIA	901	ENPLEGU ETA GAZTERIA TEKNIK	A2	3		2018-10-25
ENPLEGUA ETA GAZTERIA	902	MERKATARITZA-TURISMO TEKNIKARI	A2	3		2022-12-31
ENPLEGUA ETA GAZTERIA	903	ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA TEKNI	A2	3		2018-10-25
ENPLEGUA ETA GAZTERIA	904	ENPLEGU ETA GARAPEN AGENTEA	A2	3		2022-12-31
ENPLEGUA ETA GAZTERIA	905	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
ENPLEGUA ETA GAZTERIA	906	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
ENPLEGUA ETA GAZTERIA	907	GIZARTE ETA LAN MONITOREA	A2	3		2018-10-25
ENPLEGUA ETA GAZTERIA	908	KARROZERIAKO IRAKASLEA LHIK	C2	2		2018-10-25
ENPLEGUA ETA GAZTERIA	909	KARROZER IRAKASLE LHIK-LANBIDE	C2	2		-
UDALTZAINGOA	1001	UDALTZAINBURUA	A2/C1	3		1994-12-31
UDALTZAINGOA	1002	UDALTZAIN LEHENA	C1/C2	3		2001-12-31
UDALTZAINGOA	1003	UDALTZAIN LEHENA	C1/C2	3		1998-07-31

LANSAILA	LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUA	SAILKAPEN TALDEA	HE	TG	DERRIGORTASUN DATA
UDALZAINGOA	1004	UDALZAIN LEHENA	C1/C2	3		1998-07-31
UDALZAINGOA	1005	UDALZAIN LEHENA	C1/C2	3		2018-10-25
UDALZAINGOA	1006	UDALZAIN LEHENA	C1/C2	3		2018-10-25
UDALZAINGOA	1007	UDALZAINA	C1/C2	2		2005-04-07
UDALZAINGOA	1008	UDALZAINA	C1/C2	2		2005-04-07
UDALZAINGOA	1009	UDALZAINA	C1/C2	2		2005-04-07
UDALZAINGOA	1010	UDALZAINA	C1/C2	2		2005-04-07
UDALZAINGOA	1011	UDALZAINA	C1/C2	2		2005-04-07
UDALZAINGOA	1012	UDALZAINA	C1/C2	2		2005-04-07
UDALZAINGOA	1013	UDALZAINA	C1/C2	2		1994-12-31
UDALZAINGOA	1014	UDALZAINA	C1/C2	2		1994-12-31
UDALZAINGOA	1015	UDALZAINA	C1/C2	2		1994-12-31
UDALZAINGOA	1016	UDALZAINA	C1/C2	2		1994-12-31
UDALZAINGOA	1017	UDALZAINA	C1/C2	2		1994-12-31
UDALZAINGOA	1018	UDALZAINA	C1/C2	2		1992-03-16
UDALZAINGOA	1019	UDALZAINA	C1/C2	2		1998-07-31
UDALZAINGOA	1020	UDALZAINA	C1/C2	2		1998-07-31
UDALZAINGOA	1021	UDALZAINA	C1/C2	2		2005-04-07
UDALZAINGOA	1022	UDALZAINA	C1/C2	2		2004-11-25
UDALZAINGOA	1023	UDALZAINA	C1/C2	2		2004-11-25
UDALZAINGOA	1024	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTAS	1101	EMAKUME ETA GIZONEN BERDIN TEK	A2	3		2018-10-25
EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTAS	1102	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA	1201	KIROL TEKNIKARIA	A1	3		2018-10-25

<b>LANSAILA</b>	<b>LANPOSTUAREN KODEA</b>	<b>LANPOSTUA</b>	<b>SAILKAPEN TALDEA</b>	<b>HE</b>	<b>TG</b>	<b>DERRIGORTASUN DATA</b>
JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA	1202	ADMINISTRARIA	C1	2		2018-10-25
JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA	1203	KIROL INSTAL MANTENIM ARDURAD	C1	2		1990-07-25
JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA	1204	ZERBITZU ANITZETARAKO LANGILEA	C2	1		-

**II. ERANSKINA:**

**ANDOINGO UDALEAN  
HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK**

**Udal Euskara Zerbitzua**

**2013ko otsaila**

1. Sarrera
2. Eragin eremua
3. Zerbitzu hizkuntzak, harreman hizkuntzak, lan hizkuntzak
  - 3.1. Zerbitzu hizkuntza eta herritarren hizkuntza eskubideak
  - 3.2. Harremanetarako hizkuntza
  - 3.3. Lan-hizkuntza Andoaingo Udalean
4. Ahozko komunikazioa
  - 4.1. Herritarrari zerbitzua ematen zaionean
    - 4.1.1. Lehenengo hitza
    - 4.1.2. Harreman ofizial eta protokoloak
  - 4.2. Hirugarrenetikiko harremanetan
    - 4.2.1. Administrazioen arteko harremanetan
    - 4.2.2. Erakunde pribatuekiko harremanetan
  - 4.3. Udal barruko harremanetan: Lan bilerak
5. Idatzizko komunikazioa
  - 5.1. Herritarrari zerbitzua ematen zaionean
    - 5.1.1. Herritarrekiko hizkuntza hautua
    - 5.1.2. Udala eta bere baitako organismoen inprimakiak
    - 5.1.3. Komunikazio telematikoak
  - 5.2. Hirugarrenetikiko kanpo harremanetan
    - 5.2.1. Administrazioen arteko harremanetan
    - 5.2.2. Erakunde pribatuekiko harremanetan
      - 5.2.2.1. Udal baimenak eta lizentziak
  - 5.3. Udal barruko harremanetan
    - 5.3.1. Proiektzio publikoa duten idatziak
    - 5.3.2. Proiektzio publikorik ez duten idatziak
    - 5.3.3. Batzorde eta Batzarraldietako deialdiak eta aktak
    - 5.3.4. Barne funtzionamendurako beste jarduera esparruetan
6. Itzulpengintza
  - 6.1. Kalitatezko komunikazioak
  - 6.2. Euskararen erabilera Andoaingo Udalerrian bultzatu eta normalizatzea
  - 6.3. Udal barruko harremanetarako itzulpen zerbitzua
7. Langileen prestakuntza orokorra
8. Erregistroa
9. Diru laguntzak
  - 9.1. Dirulaguntzak udalerriko kultur, kirol eta aisi elkarteei



- 9.2. Dirulaguntzak udalerriko enpresa eta merkataritza establezimenduei
10. Instalazio eta materialaren lagapenak
  11. Argitalpenak
  12. Komunikazio telematikoa: Tresna eta aplikazio informatikoak
  13. Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak
  14. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak
  15. Kudeaketa

## 1. **SARRERA**

Azken hamarkadetan hainbat arau onartu -eta aplikatu- eta, halaber, hainbat politika garatu ditu Andoaingo Udalak ondorengo helburu honekin: Udalaren eguneroko jardunean eta egituretan nahiz udalerriko gizarte-bizitzan euskararen erabilera, pixkanaka baina etengabe, areagotzea.

Bi dira arau horietan guztietan oinarrizko zutabe, ondorengo biok: 1/88 Udal Ordenantza, Andoaingo Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituena, batetik, eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (2011-2017), bestetik. Nabarmentzekoak dira, halaber, Andoaingo Udalean Euskara Erabiltzeko onartu eta garatu diren Planak, hiru guztira, eta Udalaren kontratazio administratiborako hizkuntza betebeharrak, 2008ko urrian onartu zirenak.

Arau horien eta hizkuntza legeriaren babesean garatu du Udalak bere hizkuntza politika 80ko hamarkadatik gaurdaino. Argitu behar da, hizkuntza-legeria diogunean, batez ere honakook ditugula gogoan: Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.

Hiru hamarkadotako aipatu araubidean zehaztasun-maila ezberdinez finkatu dira gure bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, eta denboraren poderioan irizpide horietako zenbait aldatu ere aldatu dira, batez ere irizpide horiek praktikarekin kontrastatzerakoan metaturiko eskarmentua kontuan harturik. Beharrezkoa da, beraz, Andoaingo Udalaren hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak bateratu eta eguneratzea, eta horretarako testuinguru egokia da hain zuzen ere apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoari jarraiki 2013-2017 bost urtealdirako onartu behar den Udalaren Euskararen IV. Plana. Gogora ekar dezagun, gainera, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasotako aurreikuspena dela hori testuinguru honetan egitea. EBPN-n jasotakoa betetzera dator, hortaz, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideen dokumentu hau.

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpide hauen nolakotasuna ondorengo printzipioen argitan ulertu behar da:

1. Euskararen normalizaziorako indarrean dagoen araubide orokorrean (10/1982 Legea, 6/1989 Legea eta 86/1997 Dekretua) zein Andoaingo Udalak berariaz onarturikoan (1/88 Ordenantza eta EBPN) finkaturiko zehaztapenekin bat datoz dokumentu honetako Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak.
2. Herritarrei aitorturiko hizkuntza eskubideak –Udalarekin harremanak beraiek aukeraturiko hizkuntza ofizialean izateko eskubidea- egiazki bermatzea Udalaren eguneroko jardunean.
3. Euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetzak aukera-berdintasunean oinarritzea. Izan ere, euskara eta gaztelania, biak dira formalki hizkuntza ofizialak, baina eguneroko praktikan gaztelaniaren aldeko inertzia nagusitzen da, eta, ondorioz, desorekatua da bi hizkuntzen arteko harremana. Horregatik eta hizkuntza ofizialen artean oreka izatera iristeko da beharrezkoa euskarazko jardunaren aldeko ekintza positiboa planifikatu eta garatzea, herritarren hizkuntza aukera errespetatzearen kalterik gabe.
4. Euskararen erabilera areagotzea udal jardunean ez ezik udalerriko gizarte-bizitzan ere, euskara erabiltzeko aukerak sustatuz eta bermatuz.
5. Euskara Udalaren ohiko jardunean hiritarrentzako zerbitzu hizkuntza ez ezik udal langileen eta ordezkari politikoen lan hizkuntza ere gero eta neurri handiagoan izatea.

Bikaina da Udalak eta udal langileek azken hamarkadetan egin duten ahalegina udal jardunean euskarari tokia egiteko: langileen euskara gaitasuna hobetzea eta lana euskaraz egiteko trebatzea, era guztietako dokumentazioa bi hizkuntza ofizialetan erabiltzeko moduan prestatzea, itzulpengintza... eta beste hainbat bitarteko jarri eta garatu dira. Udal ordezkari politikoen artean ere gehienak dira euskara erabiltzeko gaitasuna badutenak. Horren guztiorren ondorioz egin litekeen euskararen erabileraren neurriaren eta egunerokoan egin egiten denaren arteko aldea handia da oraindik, eta alde hori pixkanaka baina etengabe murrizteko bidea egitea da Andoaingo Udalaren gogoia. Udal langileen eta ordezkari politikoen euskararen ezagutza zabala euskararen erabilerarako errentagarri eta baliagarri izan dadin nahi du Udalak. Hala nahi duten herritarrei euskaraz aritzeko emandako aukerak gero eta baliatuagoak izan daitezen nahi du Udalak. Ez azkarregi –egiazki egin litekeena helburutzat hartuta, alegia-, baina ez geldoegi –egin litekeena gerorako utzi gabe orain eginez, alegia-, eta beti ere herritarren hizkuntza aukerak egiazki errespetatuz egin nahi du bere bidea hizkuntza kudeaketari dagokionez Udalak.

Bide horretan barrena eraginkorki joateko tresna eta makulu dira Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak.

## 1. **ERAGIN EREMUA**

Andoaingo Udaleko administrazio lansail guztiek eta bere baitako erakunde publikoek bete behar dituzte hizkuntza ofizialean erabilerari buruzko arau orokor hauek.

Arauk harreman ofizial eta protokolozkoak dituzte helburu, eta ez harreman pribatu edo ez formalak.

## 2. **ZERBITZU HIZKUNTZAK, HARREMAN HIZKUNTZAK, LAN HIZKUNTZAK**

Andoaingo Udalak hiru harreman mota ditu ardatz bere eguneroko zereginak betetzerakoan: herritarrekikoak, beste administrazioekikoak eta mota askotariko erakunde pribatuekikoak, eta Udalaren barne funtzionamendukoak.

Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntza dira herritarrekin, harremanetako hizkuntza beste administrazio eta mota askotariko erakunde pribatuekin, eta lan-hizkuntza Andoaingo Udalean bertan eta bere menpeko erakunde publikoetan.

### **2.1. ZERBITZU HIZKUNTZA ETA HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK**

Euskal Herriko hiritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ez ezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Andoaingo Udalak, honako hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie espresuki herritarrei:

- a).-Udalarekin eta bere menpeko organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- b).-Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- c).-Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.

Nolanahi ere, Andoaingo gizarte bizitza euskalduntzeko eta euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal daitezen, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean euskara bakarrik erabili ahal izango da (bereziki sektore ezberdinak euskalduntzeko prozesuak bultzatzeko egitasmoetan eta haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisialdi ospakizunetan).

### **2.2. HARREMANETARAKO HIZKUNTZA**

Andoaingo Udalak erakunde publiko zein pribatuekin ere izaten ditu idatzizko eta ahozko harremanak. Horrelakoetan, oro har, euskaraz zuzenduko zaie azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzekoa, betetzea dagokien administrazio publikoei, euskara hizkuntza ofiziala duten organismoek eta

euskarazko harreman aukera espresuki adierazi duten erakunde pribatuei. Hizkuntza aukera espresuki adierazi ez duten erakunde pribatuekin harremana elebietan bideratuko da.

### **2.3. LAN-HIZKUNTZA ANDOINGO UDALEAN**

Udaleko lansail eta organo guztiek –informatiboek nahiz exekutiboek- dute beren ohiko lan-hizkuntzatza euskara aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori hartzen duten lansail eta organoen ohiko laneko hizkuntza ere izango da euskara.

Hori betetze aldera, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatua daukaten udal langileei bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna aitortzen zaie eta lan-beharkizunen arabera hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, kasu bakoitzean. Horren arabera, dagokien hizkuntza eskakizuna jadanik betetzen duten enplegatuek oro har euskaraz burutuko dute beren lana, eta gainontzekoek elebiduntze plangintzaren barruan euskalduntzen doazen heinean, beren lana pixkanaka-pixkanaka euskaraz burutzeari ekingo diote, dagokien hizkuntza eskakizuna eskuratzean erabat euskaraz jardungo direlarik.

Kontratazio berrietan, deialdi publikoz nahiz barne sustapenez betetzen diren lanpostuetan eta lanpostu horrek derrigortasun data duenean, dagokion hizkuntza eskakizuna betetzea eskatu eta bermatuko da, hautaketa prozesuan bertan edota langile finko izan aurretik egin beharreko prestakuntza ikastaroan nahiz praktikaldian. Udalean egin beharreko ordezkapenekin ere berdin jokatu da.

Irizpide bera aplikatuko zaie Andoaingo Udal Administrazioa eta bere baitako erakunde publikoetara praktikak egitera datozen ikasleei. Horrenbestez, ikasleei eskatuko zaie berak jardungo duen lanpostuak daukan hizkuntza eskakizun berbera. Dagokion hizkuntza eskakizuna betetzen dela egiaztatzearen ardura praktikaldia egitera doan zerbitzu horretako arduradunak izango du.

## **3. AHOZKO KOMUNIKAZIOA**

### **3.1. HERRITARRARI ZERBITZUA EMATEN ZAIONEAN**

Herritarrari zerbitzua ematen zaionean, euskarazko harrera eta jarduna bermatuko da. Bereziki, herritarrekiko harreman zuzenekoak duten zerbitzu guztietan ahozko komunikazio elebiduna bermatzeko neurriak hartuko dira.

#### **3.1.1. LEHENENGO HITZA**

Herritarrei lehen hitza euskaraz egingo zaie, herritarren hizkuntza aukera errespetatzearen kalterik gabe; beraz, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko da elkarrizketa.

### **3.1.2. HARREMAN OFIZIAL ETA PROTOKOLOZKOAK**

Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.

Udalan duten kargua dela-eta (ordezkari politikoez nahiz udal langileek) parte hartzen duten ekintza publikoetan eta publiko zabalarekin egiten diren lan-bileratan (herriko plangintza, parte-hartze prozesuak, bilkurak...) normalki euskaraz hitz egingo dute euskaraz jarduteko eragozpenik ez duten aipaturiko udal ordezkariak, beti ere herritarren hizkuntza aukera errespetatzearen kalterik gabe.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen dituztenean, lehenik euskaraz arituko dira.

Hartzaile jakinik ez duten bestelako ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, bozgoragailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

### **3.2. HIRUGARRENEKIKO HARREMANETAN**

#### **3.2.1. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAN**

Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzeko, betetzea dagokien administrazio publikoekin eta euskara hizkuntza ofiziala duten organismoekin ahozko harremanak euskaraz izango dira.

#### **3.2.2. ERAKUNDE PRIBATUEKIKO HARREMANETAN**

Andoaingo Udala, erakunde pribatuekin izaten dituen ahozko harremanetan, oro har, euskaraz zuzenduko zaie euskarazko harreman aukera espresuki adierazi dutenei.

Hizkuntza aukera hori espresuki adierazi ez duten erakunde pribatuekin, berriz, lehen hitza euskaraz egingo du Udalak, solaskidearen hizkuntza aukera errespetatzearen kalterik gabe; beraz, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

### **3.3. UDAL BARRUKO HARREMANETAN: LAN BILERAK**

Bere ohiko lan-hizkuntzat euskara aukeratu duten udaleko lansailek eta organoek, informatibo nahiz exekutiboek, sistematikoki bilerak euskaraz egingo dituzte.

Euskaraz ez dakiten partaideentzat aldibereko itzulpen zerbitzua emango da.

Gainontzeko kasuetan euskaraz aritzeko eskubidea bermatuko da eta dagokien

kasuetan aldibereko itzulpen zerbitzua emango da.

#### 4. **IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA**

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiliko da:

- a) Euskararen zentsuan inskribatutakoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
- b) Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzea, betetzea dagokien Administrazio Publikoari igortzen zaizkien idatzietan.
- c) Euskara hizkuntza ofiziala duten organismoari bidaltzen zaizkien idatzietan.
- d) Errotulu, seinale eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.
- e) Mezua piktogramaz baliatuz adierazi litekeenean.
- f) Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta destinatarien berezitasunek hala eskatzen dutenean.

Indarrean dagoen araudiaren arabera mezua bi hizkuntza ofizialetan eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da.

#### **4.1. HERRITARRARI ZERBITZUA EMATEN ZAIONEAN**

##### **4.1.1. HERRITARREKIKO HIZKUNTZA HAUTUA**

Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten herritarren zentsua (1986an osatua) bizirik gordetzen eta indarrean mantentzen jarraituko du Udalak.

Zentsu horretan inskribatuta daudenei euskara hutsean zuzenduko zaizkie Andoaingo Udala eta bere baitako erakundeak, eta euskara bakarrik erabiliko da haiei bidaltzen zaizkien gutun, agiri eta jakinarazpenetan, eta zentsu horretan daudenen eskariz irekitzen diren espedienteetan.

Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten herritarren errolda biztanleen udal erroldako eguneroko egokitzapen bidez sistematikoki eguneratuko da, eta gutxienez bi urtez behin 18 urte bete berriei zuzendutako eguneraketa egingo da.

Harreman hizkuntza gisa euskara soilik hautatu ez duenari bi hizkuntzetan bidaliko zaizkio idatziak.

Hizkuntza aukera espresurik ez dagoen kasuan, euskaraz jasotako idatziei euskaraz erantzungo die Udalak, eta gainontzekoei oro har, elebietan.

Indarrean dagoen araudiaren arabera mezua derrigor bi hizkuntza ofizialetan eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da.

#### **4.1.2. UDALA ETA BERE BAITAKO ORGANISMOEN INPRIMAKIAK**

Inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita inprimatuko dira, bi hizkuntza ofizialetariko edozeinetan betetzeko moduan. Euskaraz bakarrik idatzitako inprimakiak ere jarriko ditu Udalak herritarren esku.

Udaleko lansail bakoitzaren ardura izango da bere menpeko zerbitzuetan erabiltzen diren inprimakien hizkuntza kalitatea zaintzea. Hizkuntza kalitatea zaintzeko helburuarekin dagokion laguntza eta aholkularitza zerbitzua jarriko ditu Udal Euskara Zerbitzuak gainerako udal lansailen esku.

#### **4.1.2. KOMUNIKAZIO TELEMATIKOAK**

Tramitazio elektronikoa, informatikoa eta telematikoa herritarrak hautatzen duenaren arabera egingo da, euskaraz edo bi hizkuntzetan.

Tramitazioaren azken jakinarazpena, ebazpena edo ziurtapena testu estandarizatua denean, sistemak aukera emango dio herritarrari elebietan jasotzeko.

### **4.2. HIRUGARRENEKIKO KANPO HARREMANETAN**

#### **4.2.1. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAN**

Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzea, betetzea dagokien administrazio publikoei nahiz euskara hizkuntza ofiziala duten organismoek euskaraz igorriko zaizkie idatziak.

Gainontzekoetan elebietan izango da idatzizko harremana.

#### **4.2.2. ERAKUNDE PRIBATUEKIKO HARREMANETAN**

Andoaingo Udala, erakunde pribatuekin izaten dituen idatzizko harremanetan, oro har, euskaraz zuzenduko zaie euskarazko harreman aukera espresuki adierazi dutenei.

Hizkuntza aukera hori espresuki adierazi ez duten erakunde pribatuekin elebietan bideratuko da harremana.

#### **4.2.3. UDAL BAIMENAK ETA LIZENTZIAK**

Espazio publikoetan antolatzen diren ikuskizunetan, festetan eta bestelako ekimenetan (feriak, barrakak...) idatzi, iragarki eta txartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera, eta, beraz, horiek muntatzeko baimena emateko baldintzen artean, hori ere azalduko da eta

hala jakinaraziko zaie ikuskizun eta festetako arduradunei. Fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu eta beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu dagokion udal lansailak.

Obra baimenak ematerakoan baldintza moduan eskatuko da ageriko elementuetan euskararen presentzia ziurtatzea. Horren jarraipena dagokion lansailak egingo du.

Jarduera lizentzia eske datorrenari, jarduerarekin lotura daukaten eta indarrean dauden hizkuntza normalizaziorako diru laguntza guztien berri emango zaio: errotulazioa, irudi korporatiboa...

Andoainen geralekuren bat duten garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz ere egin daitezen eskatuko die garraio publikoetako arduradunei Andoaingo Udalak.

#### **4.3. UDAL BARRUKO HARREMANETAN**

Udaleko lansail eta organo guztiek –informatiboek nahiz exekutiboek- dute beren ohiko lan-hizkuntzat euskara aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori hartzen duten lansail eta organoentzat herritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izango da euskara.

##### **4.3.1. PROIEKZIO PUBLIKOA DUTEN IDATZIAK**

Proiektzio publikoa duten idatziek herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzen dituztela bermatuko da. Idatzi horien sortze hizkuntzaren arabera itzulpen zerbitzuak laguntza emango dio dagokion langileari betiere itzulpenetarako irizpideetan finkatutakoa kontuan hartuta.

Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak eta ebazpenak oro bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

##### **4.3.2. PROIEKZIO PUBLIKORIK EZ DUTEN IDATZIAK**

Proiektzio publikorik ez duten dokumentuen sortze eta tramitazio hizkuntza lansail bakoitzak erabakiko du, baina ohiko lan hizkuntzat euskara aukeratu duten lansailetan euskara izango da proiektzio publikorik ez duten idatzien ohiko hizkuntza.

##### **4.3.3. BATZORDE ETA BATZARRALDIETAKO DEIALDIAK ETA AKTAK**

Udaleko organo informatiboen eta exekutiboen bilkuretako deialdi guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, bere kideek aho batez euskaraz egitea erabaki ezean.



Udaleko organo informatiboen eta exekutiboen bilkuretako akten testu originalak bileretan erabili den hizkuntza ofizialean idatziko dira. Edozein kasutan, euskaraz idatzitako proposamen edo diktamenei buruzko erabakiak, bileretan gaztelaniaz eztabaidatuak izan badira ere, euskaraz jasoko dira aktetan.

Euskara ohiko lan-hizkuntza aukeratu duten Udaleko organoen, informatiboak nahiz exekutiboak, deialdiak eta aktak euskaraz idatziko dira beharrezko den kasuetan gaztelarara itzultzearen kalterik gabe. Dagokion lansailak bere kabuz hori egitea ezinezkoa duenean, Udalaren Euskara Zerbitzua izango da indarrean dagoen legeriak herritarrei aitortzen dizkien eskubideen bermetan gaztelaniaz ere eman behar dena gaztelaratzeko laguntza emango duena.

Osoko bilkuretako deialdiak elebietan izango dira, eta aktak, berriz, euskaraz jasoko dira, nahiz eta bertan izandako interbentzioei buruzko erreferentziak egin diren hizkuntzan jaso.

#### **4.3.4. BARNE FUNZIONAMENDURAKO BESTE JARDUERA ESPARRUETAN**

Lansailtako barruko oharrak euskaraz izango dira mezuaren ulergarritasuna ziurtatzen bada.

Bestelako mezu eta inprimaki orokorretan (eskanerrak, faxak, telefonoen pantailak...) euskarazko mezua bederen bermatuko da.

Lan-kontratuak, funtzionarioen izendapenak eta nominak gutxienez euskaraz egingo dira. Nolanahi ere, hartzailearen hizkuntza aukera errespetatuko da.

## **5. ITZULPENGINTZA**

### **5.1. KALITATEZKO KOMUNIKAZIOAK**

Kalitatezko komunikazio idatzia sustatu nahi da, testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak. Hona hemen kalitatezko testuak idazteko irizpideak:

- Helburua komunikatzea da: hartzaileak lehen entzunaldi edo irakurraldian ulertu behar du esaten zaiona. Testuak egokia izan behar du komunikazioaren ikuspegitik.
- Testuak egitura logikoa izango du, eta egitura hori agerian geratuko da era honetako estrategiak baliatuta: izenburuak eta azpi-izenburuak, ideiak paragrafoka, lege-aipamenak oin-ohar modura...
- Testuak zuzena izan behar du.
- Hizkuntza bakoitzak badu bere esateko era: errespetatu. Nolanahi ere, administrazioko hizkera berritu, modernizatu eta herritarrengana hurbildu beharra dago.

- Idazkiaren diseinua zaindu, irakurgarritasuna bermatzeko.
- Udalak bi hizkuntza ofizialen erabilera ez sexista bultzatuko du.

## **5.2. EUSKARAREN ERABILERA ANDOAINGO UDALERRIAN BULTZATU ETA NORMALIZATZEAZ**

Andoaingo udalerriko elkarteei eta sektore ezberdinei, beren jardunean euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko, Udalak bere Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eskura jarriko die, proiektio publikoa duten idatziak euskaraz ere emateko doako laguntza gisa, ondorengo muga hauen barruan:

- 3.600 karaktere arteko testuen itzulpena edo zuzenketa.
- Webguneei dagokienez, berriz, oinarrizko mezuen itzulpen eta zuzenketa hartuko du bere gain Euskara Zerbitzuak, ez, ordea, edukien itzulpen eta zuzenketa.

Euskara Zerbitzuak erabakiko du, unean uneko bere lan programazio eta lan kargaren arabera, itzulpen eta zuzenketa horiek guztiak zein neurritan eta zein momentutan egin daitezkeen.

## **5.3. UDAL BARRUKO HARREMANETARAKO ITZULPEN ZERBITZUA**

Lansail bakoitzak, lan hizkuntza edozein duelarik ere, hartu beharko ditu neurriak barne harremanetako hartzaileei komunikatu edo jakinarazi behar dizkien eduki guztiak hizkuntza batean zein bestean, beharrezko den hizkuntzan, alegia, osatzeko eta bideratzeko.

Aukera dagoenean, itzulpena ez den beste bide batzuk landuko ditu lansailak berak (adibidez, ahozko edo idatzizko laburpena eginez). Dena dela, Euskara Zerbitzuak beharrezkoak diren kasuetan laguntza eta hizkuntza aholkularitza emango dio dagokion lansailari.

## **6. LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORRA**

Andoaingo Udalak langileentzat ikastaroren bat antolatzerakoan (barne nahiz kanpoko eskaintza egiterakoan) bi hizkuntza ofizialen arteko oreka gordeko du.

Euskara lan hizkuntza aukeratuta daukaten lansailatan eta dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten langileen kasuan, lehentasuna izango du euskarazko prestakuntza antolatzeak.

## **7. ERREGISTROA**

Udaletxera sartzen diren nahiz Udaletxetik ateratzen diren dokumentuak idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira Udal Erregistroan, Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legeko 7. artikuluan xedatuaren arabera. Bi hizkuntza ofizialetan idatzita daudenak euskaraz inskribatuko dira.

## 8. **DIRU LAGUNTZAK**

### 8.1. **DIRU LAGUNTZAK UDALERRIKO KULTUR, KIROL ETA AISI ELKARTEEI**

Kultur, kirol eta aisialdi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioz, Andoaingo Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak baitira.

Diru laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek artikulua honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.

### 8.2. **DIRU LAGUNTZAK UDALERRIKO ENPRESA ETA MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUEI**

Andoaingo Udalak hainbat diru laguntza emango ditu enpresa zein merkataritza egiten dituzten hainbat jardueratan euskararen erabilera areagotzeko. Diru laguntza kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.

## 9. **INSTALAZIOEN ETA MATERIALAREN LAGAPENAK**

Udal baimen eta lizentzietarako nahiz udal diru laguntzetarako xedaturiko hizkuntz baldintzak bete beharko dira udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere. Udalak, beraz, pilotalekua, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.

## 10. **ARGITALPENAK**

Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei, eta eskubide hori bermatzeko bere esku dauden neurriak hartuko ditu Udalak kasu bakoitzean.

Euskara hutsean argitaratuko dira ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta destinatarien berezitasunek hala eskatzen dutenean (bereziki sektore ezberdinak euskalduntzeko prozesuak bultzatzeko egitasmoetan eta, haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisi ospakizunetan).

#### 11. **KOMUNIKAZIO TELEMATIKOA: TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK**

Ordenagailuak, berauen inprimagailu eta programak, eta Andoaingo Udalean erabiltzeko eskuratutako materiala euskaraz funtzionatzeko egokitua izan dadin neurriak hartuko ditu Udalak, eta bere esku dagoen neurrian beti bermatuko du aipatutako hizkuntza aukera.

Andoaingo Udalean programa informatiko komertzial edo orokorrak instalatzerakoan, horiek euskarazko bertsioa badute, bertsio hori instalatuko zaie langile guztiei. Hala ere, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten langileek aukera izango dute, beharrezkoa irizten badiote, gaztelerazko bertsioa instalatzeko.

Andoaingo Udalaren eskumenean diren internet eta intranet sareetako edukiak, oro har, euskaraz eta gazteleraz kontsultatzeko moduan egongo dira. Andoaingo Udalaren web gunera eta lansailletako ataletara sartzean, euskarazko orria agertuko da lehenbizi, eta orri horretan bertan egongo da gaztelera eta gainerako hizkuntzak hautatzeko aukera, horrelakorik badago.

Internet eta intranet sareen bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz eta gazteleraz egiteko moduan egongo dira.

Administrazioaren ohiko prozeduraz kanpo, Andoaingo Udaleko lansailak beren web gunetan kanpoan sortutako edukiak jartzen dituztenean, irizpide orokor hauek jarraituko dira: bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko dira, berdintasun printzipioa oinarri harturik. Udaleko lansail bakoitzaren ardura izango da oreka hori ziurtatzea.

#### 12. **ERROTULAZIO FINKOA ETA NOIZBEHINKAKO OHARRAK**

Udalaren egoitza, bulego zein hirugarren batzuei lagatako lokal guztietako kanpoaldeko nahiz barrualdeko errotulazio finkoa, aldakorra zein noizbehinkako oharrak (askotan paperean egindakoak), bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiliko da:

- Errotulu, seinale eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.
- Mezuaren ulergarritasuna bermatzen denean.
- Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek hala eskatzen dutenean.

#### 13. **IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK**

Hedabideetan argitaratzen diren iragarkiak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, ahal den neurrian euskarazko mezua lehenetsiko delarik. Era berean, hedabideetara bidaltzen diren ohar eta informazioak ere euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira, eta informazio horien berri bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko zaie komunikabideei.

Euskara bakarrik erabiliko da ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean.

14. **KUDEAKETA**

Sail bakoitzaren ardura izango da hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau hauek bere esparruan ezagutzen eta betetzen direla bermatzea; hori guztia, Andoaingo Udaleko Euskararen Erabilera Planean jasotakoa aintzat harturik.

Euskara Zerbitzua izango da, kasua balitz, irizpide hauen aplikaziorako zehaztapenak emango dituena, beti ere indarrean dagoen araudiaren arabera.